




ttipi-ttapa

TOPIKOH

www.ttipi.net



Olaižola II eta Begino txapeldunak → 36

2011ko apirilaren 28a | XXXI. urtea | 541. zenbakia

Hauteskundeak

Udal kandidaturen zerrendak

DONEZTEBE → 16

Udaberriko Feria maiatzaren 6an

SUNBILLA → 18

Amerikanoen besta maiatzaren 1ean

GOIZUETA → 24

Txino auzoko jaiak maiatzaren 6an eta 7an

SARA → 33

Euskal Herriko errugbi xapelketa maiatzean



SENPERE | Maiatzak 8
Herri Urrats

laku bat munduan

Julio SOTO | Nafarroako Bertsolari Txapelduna

Apirilaren 9an 1.300 bertsozalek lepo bete zuten Iruñeko Labrit.

Finala Julio Soto eta Xabier Silveiraren arteko buruz burukoan erabaki zen, duela 2 urte bezala.

Oraingoan, Gorritikoak eraman du txapela.

ELKARRIZKETA → 3



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Hurrengo txapelketa 2013an



Xalbador IRIARTE | Arizkungo metereologia datuen biltzailea

Bere lana eskertzeko omenaldia egin berri diote

Nafarroan hiru baino ez dira 30 urtez lan hori egin dutenak, eta horietako bat da Xalbador. Hainbertze urtetan egindako lana eskertzeko, omenaldia egin zioten martxoaren 17an Iruñeko Planetariumean. Pozik hartu zuen saria, eta gainera, Nafarroan hobekien egiten duenetako bat dela aditu ondotik, oraindik kontentuago gelditu zen.

ERREPORTAJEA → 4-5

ZOKKETAK → 43



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58 telefonora

LESACA **BERA**

BERA LESAKA AGENDA MAIATZA 2011

11 asteazkena **12** ortzeguna **19** ortzeguna **20** ortziera

MUGAZ GAIN ANTZERKI JAIALDIA
Maiatzaren 11 (asteazkena) eta 12an (ortzeguna): DBH
Maiatzaren 19 (ortzeguna) eta 20an (ortziera): LH
Antolatzailea: Antzerki eta Eskola elkarteak

7 larunbata **ARGAZKI RALLYA**
Hasiera: 10:00etan
Ricardo Baroja Ikastetxean
Adina: 2 - 6 maila. - Gola: libre
Taldeak, lau lagunez osatuak izanen dira.

18 ostirata **20** ostirata **ARGAZKI ERAKUSKETA**
Kultur Etxean - 18:00 - 20:00
Maiatzaren 20an 20:00etan talde bakoitzak hominudak jasoko du eta bertan diuden pertaideen artean opari zuzketa egiten da.
Antolatzailea: Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoa

14 ostirata **28** larunbata **IRAKURKETA KLUBA**
Koskontako Bidea 7-2 udaletxeko aretoan - 19:00 - 20:30
Areatzailea: Beti-Garze - Laguntzailea: Lesakako Udala

26 osteguna **BAZTAN-BIDASOAKO BERTSOPAPER LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kultur Etxean - 18:00etan
Antola.: Bortziritako Bertsu Eskola eta Berako Kultur Batzordeak
Lagun.: Bortziritako Euskara Mankomunitatea

17 ostirata **ENTZUNALDIAK**
Musika Eskolan - 17:30
Antol.: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

24 ostirata **PIANO TEKLATUA**
TRIKITIXA eta AKORDEOIA

25 osteguna **PERKUSIOA, TXISTU eta BIOLINA**

26 osteguna **GITARRA** Musika Eskolan 18:30

27 ostirata **KONTZERTUA. LESAKAKO MUSIKA ESCOLA**
Udaletxean - 17:00etan
Antola.: Lesakako Musika Eskola - Lagun.: Lesakako Udala

28 larunbata **ANTZERKIA: Errautsak (Artedrama, Le Petit Theatre de Pain & Dejavu, Panpin labortagei)**
Kultur Etxean - 22:00etan - Sarrera: 6€
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordeak - Argibide gehiago: www.errautsak.com
Eitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan | www.berakoudala.net | www.lesaka.net

28 larunbata **HAURRENTZAKO ESKULAN TAILERRA**
Komentuko zelaian - Goizez (piem eguez gero, Arrano Elkarteak)
Antolatzailea: Gure Arrano Elkarteak
Laguntzailea: Lesakako Udala

IV. Pintxo Lehiaketa DONEZTEBE

Apirilak 30, maiatzak 1

MERKATARIAK KARRIKETAN
Apirilak 30 | DONEZTEBE

Laguntzailea:



Julio Sotok (Gorriti, 1987) Nafarroako Bertsolari Txapelketa bigarren aldiz irabazi zuen, apirilaren 9an Iruñean egin zen finalean. Saio ederra egin zuten taulara igo

ziren zortzi bertsolariek eta Labriten egon zen giro ederrak lagunduta, bertsolaritzaren festa handia izan zen finalekoa. Izan ere, 1.300 bertsozalek lepo bete zuten hiriburu-

ko pilota plaza. Finala Sotoren eta Xabier Silveira lesakarraren arteko buruz burukoan erabaki zen, duela bi urte bezala. Oraingoan, Gorritikoa txapeldun.

Julio SOTO | Nafarroako bertsolari txapelduna

«Urteroko txapelketak asko eman digu, baina nekagarria ere bada»

A. AROTZENA | IRUÑA

Nola ikusi zenuen zure burua bertsotan, finaleko giroa...

Beldur pixko bat nuen nerbioek nola erantzun go zidaten, baina egun ona pasatu nuen. Aldarte ona nuen.

Duela bi urteko buruz burukoaren errebantxa espero zuen bertsozaleak. Zuek ere?

Gure izenak entzutean bioi gogoratu zitzaigun. Duela bi urtekoan olatu horretan sartu nintzen eta pixko bat deskontzentratuta pota bat egin nuen eta aurtan pixka bat hotz mantendu behar nuela pentsatu nuen.

Halere, azkeneko kartzelakoan arriskatu ere egin zenuen, bederatz puntukoan Munduaren ilunabarra doinu era biliz...

Kartzelakoan arriskatu beharra neukala ikusi nuen, desenpate batean, Labrit bertsozalez lepo, merezi zuen arriskatzeak. Neurri horretan bapatean gutxitan aritu naiz eta bertso eskolan ere pare bat aldiz, baina atzetik animatu ninduten Terreroseketa, eta ongi atera zen.

Iaz Silveirak ez zuen txapelketan parte hartu. Erronka hori ere bazenuen, bera oholta gainean izanik ere txapeldun izan zintezkeela erakustea?

Erronka gisara ez, baina



Julio Soto, arrazoi batengatik edo bertzearengatik sufritzen dutenei eskaini zien txapela.

denok dakigu Xabier zer bertsolari eta txapeldun handia den. Bera finalean izanik nik irabaztea meritu plus bat da.

Soto eta Silveira Nafarroako bertsolaritzako Barça eta Madril direla ere aditu genuen erdi broman erdi serio. Gainerakoek bertze liga bat jokatzan dutela. Horrela ikusten duzu zuk ere?

Ez zait iruditzen. Lehengoan ikusi zen maila oso politeko saioa izan zela. Estitxuk kriston saioa egin zuen, denak ere saio polita egin zuten. Puntuazioak ez ditut ikusi baina nahiko paretsuan joan

ZIKLO BATEN AMAIERA

«Ez dakit erabakia dagoen, baina txapelketa bi urtetik egiteko asmoa dago eta tarteko urtean, Arabako ereduari jarraituz hasi berriekin eta taldekako txapelketa bat egitea, gauza xumeago bat. herriz herri. Guri asko eman digu urteroko txapelketa jokatzek, baina aldi berean sufri-mendu handia ere bada eta nekagarria. Bi aldeak ditu, alde onak eta txarrak».

zen kontua.

Duela hogeitau urte horrelako mailako final bat Nafarroan pentsaezina zela ere erran zuen Bertsozale Elkartearen presidentea ohiak...

Nafarroan bertsoaren mailak asko egin du gora, bai bertsolarienak, baita bertsozaleenak ere. Bertsozaleak ere asko ugaritu dira eta bertsolari guzietan nahiko final polita egin genuen.

Bale edo kale, kale edo bale, baina bukatu zenuen dardila bukatu zenuen azken bertsoa. Lau orduz oholta izan ondotik zure egoera ere ager-

zten du horrek?

Gaia entzun nuenean gu ere egoera berdinean geundela pentsatu nuen. 21na ginela eta gu ere txapelaren bila azken tantua jokoan genuela eta sentsazioa ere hori zen, aurrera edo atzera, baina bukatu dadila hau. Sufritu ere egiten da. Nahiko luze egiten da eta zaila izaten da tentsioari eta kontzentrazioari eustea, kartzeleko bi gai lantzea, baina merezi du.

Iaz baserri-tarrari, aurtentz sufritzen dagoenari. Txapela eskaintzerakoan ere aukera berezia egin duzu bi urteotan...

Bai, ez dira eskaintza ohi-koak izan, baina txapela jantzita izaten den euforia hori sufritzen dutenekin banatu nahi nuen aurtentz. Gurean sufritzen ari den jende asko dago eta inguruan ere horrelako egoera bereziak bizitzea suertatu zait eta jende horrekin gogoratu naiz.

Hemendik bi urtera BECeko buruz buruzkoan ere hitzordua jarri zizun Silveirak...

Hori ezinezkoa dela aitortu zuen berak *Hitzetik Hortzeran*. Errealista izan behar da eta Euskal Herriko txapelketarako sailkatu egin behar da lehenik, eta gero finalerdietan sartzea ere zaila da. Saiatuko gara eta horretarako entrenatuko dugu, baina hankak lurrean izanda.



Xalbador Iriarte
Sansiñena arizkundarra,
gibelean estazio meteo-
rologikoa duela.

EGURALDIA → BATZUK NAFARROAKO GOBERNUARENAK ETA BERTZEAK AEMET-ENAK

Egunero temperatura eta prezipitazioa neurtzeko 19 estazio meteorologiko daude eskualdean

Horietatik 16 eskuzkoak dira eta hiru automatikoak. Azken hauek haizea eta hezetasuna ere neurtzen dute

Beroa, hotza eta euria. Denetarik ezagutu dugu aurten. Apirilean, erraterako, bero handiak egin ditu, termometroa 30 gradutara ailegateraino. Urtarrilean hotz handia

egin zuen, 8 gradu zeropetik tartean. Eta gogotik euria egiten ere ikusi dugu otsailen. Horrelako datuak dira estazio meteorologikoen egunero egunero biltzen dituztenak.

G. PIKABEA

Han eta hemen, batekin eta bertzearekin, betiko eztabaidagaia izaten da eguraldia. Irargarpenei ere arretaz erreparatzen die jendeak eta hori da Eus-

kalmek edo Aemet-ek –Euskal eta Espainiako Meteorologia Agentziak– egiten duten lanaren ageriko emaitzetako bat. Baina horrelako agentziek datuak eman ditzaten, kolaboratzai-

le talde zabala dago gibelean eta isilpean lan egiten duen aunitz. Nafarroan, erraterako, 152 estazio meteorologiko daude. Batzuk Nafarroako Gobernuaren esku daudenak, eta baka-

rren bat, Aemet-ena dena. Automatikoak dira batzuk, Baztango Gorrerandi mendian (1991n instalatua eta 1.071 metrotara dagoena), Iruritan (2008az geroztik dagoena, Aemet-ena dena eta 183 metroko altueran dagoena) edota Donezteben (1999tik eta 125 metrotara) daudenak bezala. Egunean zehar hamar minuturo biltzen dituzte datuak: haizea, hezetasuna, prezipitazioak, temperatura maximoak eta minimoak, erradiazioa... Eta telematika bidez bidaltzen dituzte datuak.

Baina bertze batzuetan, eskuzkoetan, betiko metodoak erabiliz eguraldiaren inguruko datuak biltzen dira egunero-egunero, euri kopurua publiometro batekin eta tenperatura maximoak eta minimoak termometroekin. Datuak bildu eta Nafarroako Gobernuari jakinarazten dizkiote eta horri esker ditugu eskura

azken urte eta momentuko datuak.

Nafarroan dauden 88 eskuzko estazio meteorologikoetatik 16 daude eskualdean, gehienak 70. hamarkadatik aitzinera instalatuak, baina bakarren bat lehenagotik ere bai: Amaiurren (1974an paratua eta 300 metrotara), Areson (1988koa eta 524 metrotara), Arizkun (1976koa eta 261 metrotara), Goizueta aldean dagoen Arranbide zentralean (1976koa 313 metrotara), Artikutzan (1931koa eta 97 metrotara), Beran (1979koa eta 50 metrotara), Bertzen (1992koa eta 147 metrotara), Donezteben (1917koa eta 125 metrotara), Etxalarren (1988 eta 163 metrotara), Goizuetan (1950koa eta 323 metrotara), Iruritan (2007koa eta 183 metrotara), Leitizan (1986koa eta 668 metrotara), Lesakan (1979koa eta 76 metrotara), Lesakako San Antonen (1981koa

XALBADOR IRIARTE SANSIÑENA ARIZKUNDARRA

«Azken 30 urteotan gehien kanbiatu dena elurra da, orai gutiago egiten du»

85 urterekin, baserrian duen behi bakarra jeitzi eta etxetik metro gutti batzuetara duen estazio meteorologikora joaten da Arizkungo Landaberro baserriko Xalbador Iriarte, 08:00 aldera. Publiometroan zenbat euri egin duen eta termometroetan temperatura maximoak eta minimoak zein diren biltzen ditu eskuan apuntatuta, gero Nafarroako Gobernutik deitzen diotenean horien berri emateko. Azken 30 urteotan egunero egin du lan hori, eta badu segitzeko asmoa. Eguneroko dedikazioa izanagatik, ez omen da lan haundia: «lana baino gehiago oroitzea da. Etxe ondoran ibiltzen gara, ez dugu inorat gan beharrik eta niretako ez da lana», dio. Gaineratu digunez, «ezin izan dudanean, semea edo andrea gan izan da».

30 urte hauetan ez tenperaturari eta ez prezipitazioari ere, ez omen du aldaketa haundiegirik somatu: «lehen ere aski urte idorrek egiten zituen, eta orai ere

klase berean. Eta tenperaturekin ere berdintsu». Zerbait aldatu baldin bada, hori elurrarekin nabaritu du: «gehien kanbiatu dena elurra da, orai gutiago egiten du. Aspaldixkoko urteotan gero eta gutiago egiten du. Mendietan bai, baina hemen beheiti ez [etxea 261 metrotara du]. Gan den neguan ere behin egin zuen, baina deus ere ez, doi-doi lan tapatzeko. Gu gazteak ginenean, bozpasei zentimetro sorik egiten zituen eta urte batean 80 zentimetro ere bai».

OMENDUA

Nafarroan hiru baino ez dira 30 urtez lan hori egin dutenak, eta horietako bat da Xalbador. Hainbertze urtetan egindako lana eskertzeko, omenaldia jaso zuen martxoaren 17an Iruñeko Planetariumean. Pozik hartu zuen saria, eta gainera, Nafarroan hobekien egiten duenetako bat dela aditu ondotik, oraindik kontentuen.



Xalbador Iriarte, etxeko atarian.

eta 305 metrotara), Sunbilla (1990ekoa eta 117 metrotara) eta Zugarramurdi (1976koa eta 97 metrotara).

2011KO DATUAK

Estazio meteorologikoei esker dakigu, aurtengo egunik hotzena urtarrilaren 24a izan dela. Egun horretan, Gorrarendin, 8,6 zero azpitik neurtu zituen termometroak, eta Irurita-ko eskuzko estazioan zortzi gradu zeropetik. Temperatura altuenak, aldiz, Beran, Arizkun, Goizuetan, Iruritan eta Donezteben neurtu ziren. Apirileko lehenbiziko egunetan bero haundia egin zuen, eta hilaren 7an Beran, tenperatura 31 gradutaraino ailegatu zen; Doneztebe-ko eskuzko estazioan 30,9 gradu neurtu ziren eta Arizkun, Goizuetan eta Irurita-ko eskuzkoan 30 gradu.

Orain arte 2011ko egunik euritsuena otsailaren 22a izan da. Euri aunitz egin zuen egun

AZKENEKO 10 URTEOTAKO EGUNIK HOTZ, BERO ETA EURITSUENAK (ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA)

HERRIA	TENPERATUA				PREZIPITAZIOA	
	Data	MAXIMOA	Data	MINIMOA	Data	24 ordutan bildua
Amaiur	2003.08.04	41,0 Cº	2007.01.28	-9,5 Cº	2006.03.10	109,5 litro/m²
Areso	2003.08.04	37,5 Cº	2005.03.01	-10,0 Cº	2002.12.03	116,0 litro/m²
Arizkun	2003.08.04	41,0 Cº	2007.01.27	-12,0 Cº	2006.03.10	126,0 litro/m²
Artikutza	2009.08.23	35,0 Cº	2005.03.01	-9,0 Cº	2004.01.23	152,5 litro/m²
Bera	2003.08.04	40,1 Cº	2005.03.01	-8,0 Cº	2007.08.21	116,4 litro/m²
Bertz	2003.08.12	42,0 Cº	2001.12.25	-9,0 Cº	2009.11.08	82,6 litro/m²
Doneztebe (eskuzkoa)	2003.08.04	42,5 Cº	2001.12.25	-10,5 Cº	2006.03.10	115,4 litro/m²
Doneztebe (automatikoa)	2003.08.04	42,2 Cº	2005.03.01	-8,9 Cº	2007.08.21	117,5 litro/m²
Etxalar	2003.08.04	41,0 Cº	2005.03.01	-8,0 Cº	2009.02.11	113,2 litro/m²
Goizqueta (Arranbide)	2003.08.04	38,0 Cº	2010.12.26	-8,0 Cº	2009.02.11	126,8 litro/m²
Goizqueta	2003.08.04	40,5 Cº	2010.12.26	-6,0 Cº	2004.01.23	122,5 litro/m²
Gorrarendin (automatikoa)	2002.07.20	33,8 Cº	2005.02.28	-12,7 Cº	2007.08.23	134,8 litro/m²
Irurita (eskuzkoa)	2010.08.21	38,0 Cº	2007.01.28	-10,0 Cº	2009.02.11	103,3 litro/m²
Irurita (automatikoa)	2010.07.08	38,4 Cº	2010.01.12	-7,1 Cº	2009.02.11	118,3 litro/m²
Leitza	2003.08.04	37,0 Cº	2001.12.15	-11,0 Cº	2007.03.07	118,0 litro/m²
Lesaka	2003.08.04	40,2 Cº	2001.12.25	-9,0 Cº	2006.03.10	92,0 litro/m²
Lesaka (San Anton)	2009.08.15	35,7 Cº	2010.12.26	-5,5 Cº	2010.06.16	165,4 litro/m²
Sunbilla	2003.08.04	40,2 Cº	2001.12.25	-9,0 Cº	2006.03.10	127,0 litro/m²
Zugarramurdi	2003.08.04	41,8 Cº	2001.12.15	-7,5 Cº	2007.05.03	205,6 litro/m²

horretan eta prezipitazio gehien bildu ziren tokiak Artikutza, San Anton eta Arranbide zentrala izan ziren. Arran-

biden, egun horretan 149,6 litro neurtu ziren m²ko; San Antonen 149,3 litro/m²ko eta Artikutzan 145,5 l/m²ko.

Egun horretan, euririk guttien egin zuen tokiak Doneztebe eta Lesaka izan ziren. Doneztebe-ko eskuzko esta-

zioan 57,8 l/m²ko neurtu ziren eta automatikokoan 65,2 l/m²ko. Lesakan, berriz, 65 l/m²ko.



Nire txanda
Joseba URROTZ

Bakean gaitezen!

Onartuko dut, ez dut garbi zeri buruz solastuko naizen txanda hontan. Alegia, xoko honetatik sermoian aritzen gara batzuk, zergatik? Zertarako? Ulertzen al gaituzue? Axola al zaizue guk dioguna? Batzutan gainerakoek ez dakitena bageneki bezala aritzen gara... Banuen bai, gaia burutan, kritika bat zen, baina azken orduan konturatu naiz behar bada ez zela oso aproposa ikusten ari naizen giroagatik. Hori ba, ikusirik hainbat ikamika, akusazio, ezadostasun daudela idazkietan bideratuak gure TTIPI-TTAPAN, baita gure herrietan ere, ez dut polemikarako biderik ematen. Hauteskundeak ere direla eta, hainbat herritan ez da udalerako talderik sortuko, bertze batzutan mesfidantzak eta ez ulertuak ere izanen dira... Bakerako deia egin nahi dut, gutti gara, ez al du merezi elkarrekin hobe konpontzeak? Hala bedi!

«Bakerako deia egin nahi dut, gutti gara, ez al du merezi elkarrekin hobe konpontzeak? Hala bedi!»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Mende honetako lepradunak

Lepa desagertuxea dagoen eritasuna omen da. Baina ez gurean. Izan ere, somatzen dut badirela edozein zerrenda zikintzen duten pertsonak (Euskal Herrian 40.000, omen). Ingurua kutsatzen duten emakumeak. Talderik garbiena zornez pozoitzen duten gizasemeak. Okindegira doan ama edo ostatuan tragoa hartzen duen laguna dirudite, itxura batean. Baina kontuz, legendunak dira.

Nabarmentzekoak



Iñaki PERURENA
Ikastolek omendua

Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak omenaldia eskaini diote Leitzako harrijasotzailari, «euskararen alde egindako lana eta beti ikastolen ondoan egon dela» eskertuz.



Jose Mari TELLETXEA
25 urtez berriemaile

Apirilaren 14an 25 urte bete zituen beratarrik Diario Vasco egunkariko berriemaile gisara. Gaur egun kirol albisteak ematen ditu, baina bere garaian albiste orokorak ere eman zituen.



Didier ZAGO
Berako Mendi Maratoi Erdia

Hirugarren garaipena segidan ez ezik, Berako Mendi Maratoi Erdiaren marka kasik bi minututan hobetu du korrikalari frantziarrak (1:38:11). 513 korrikalarietatik 481 iritsi ziren helmugara.

Atzera begira → 2000.04.20 / TTIPI-TTAPA 276. zbk



Isidoro Fagoaga Berako tenorea hizpide

Berako Musika Eskolari izena ematen dion tenorea nor izan zen ezagutzeko erreportaje interesgarria karrikatu zuen TTIPI-TTAPAK orain hamaika urte, *Isidoro Fagoaga, Gernikako bonbek isilarazi zuten tenorea* izenburupean. 27 urterekin debutatu ondotik, Italiako Scala antzokian ere hainbat emanaldi eskaini zituen eta Wagner interpretatzen maixua izan zela diote. Baina Gernikako bonbardaketaren egunean faszisten kontrako jarrera publikoki erakusteagatik bere disko eta partitura guztiak erre zizkieten eta gailurretik klandestinitatera pasatu zen. Musika utzi eta idazle lanean ere aritu zen, erbestean.



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Miteo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leizta15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Ahhh!!! Gripea

Joseba URKIOLA

Gezurra esan nun Getarin... Bukaerarako utziko dugu esaera zahar honen amaiera. Udaberriko lehen argi printzak geuretzan ari garenean, gripearen inguruan mintzatu nahiko nuke. Txertoa hartzeko kanpaina aspalditxo jarri zen abian eta badirudi negu nahikoa lasaia izan dela. Ezusteko handirik gabekoa. Baina entzun al duzue zerbait A gripearen inguruan?

2009ko udaberrian Mexikoko errantxo batean kutsatu ziren txerri pare bat tarteko, H1N1 birusak edo A Gripeak oihartzun handia hartu zuen. Sekulako izurritea eta heriotz mordoak sorraraziko zuela iragartzen zuten batzuek. Jende asko kutsatuko zela. Egunkarietako ekonomia, osasun, gertakari eta nazioarteko tartekietan albiste asko irakur zitezkeen afera honen inguruan.

15 hilabete geroago, egunkari bakar batean ere ez da ezer ageri. Eskelei begiratzen hasi eta; gure inguruan ez da inor hil A gripea tarteko. Honek denak, zer pentsatu handia ematen du. Gezur handi baten txotxongiloak izan garen irudia daukat.

Nobela honen titulua; "A gripea: Zoritxarra sortu beharra daukan birusa" izan daiteke. Aktore nagusiak: Nazioarteko Osasun Erakundea, industria farmazeutikoa eta Lehen Munduko gobernuak. Tesia berriz; gaitz berri bat sortuaz sendagai berri bat ekoiztea, inplikaturako guztiak aberastu eta poltsikoak betetzeko helburuarekin.

Ezin ukatu A gripea tarteko, munduko txoko askotan jende anitz hil dela. Oraindik ere batzuk, H1N1 birusaren aztarinak pairatzen ari dira. Baina hau al da geroz eta makurragoa, okerragoa den mundu honetan heriotz gehien sortzen duen gaitza? Nazioarteko Osasun Erakundearen arabera; HIESak, betiko gripeak eta minbiziek askoz heriotz gehiago sortzen dituzte. Baina horien konponbideak ez dira berriak, bai ordea A gripearenak. Moda diseinatzaile eta teknologia berrien ekoizleekin gertatzen den moduan, gaixotasun berri gehiago badaude askoz ere urte oparagoa, aberastasun handiagoa izango dute sendagaiak egiten dituzten enpresek.

Historiako krisi garairik zikoitzenean, energia nuklearraren erabilgarritasuna zalantzan dagoen honetan, A gripeak sortutako kezka antzua tarteko sekulako dirutzak gastatu dituzte Europako Gobernuak. Japonian eta Afrikako gatazketan muturra erabat sartzen ari den Frantzia jakintsuak adibidez; 60 milioi biztanleentzat 94 milioi dosi erosi zituen. Milioika dosi erabili gabe geratu dira. Beste herrialdetan berdintsu. Tristeena badakizue zer den, datu hauek gerora plazaratzen dituztela. Milioika dosi Afrikako txiroengana edo zakarretara joango direla. Dosi bakoitzarengatik Gobernuak 10 euro ordaindu zituztela eta berezko balioa 2 euro ingurukoa zela. %80 gutxiago, alegia. Eta gainera orain jakin dugu, sendagai berezi hauek bestelako arazoak sortu ezkerok egileak ez direla horretaz arduratzen. Hau guztia da benetan tristea eta zalantzaragarria. Amaitezko azken datu bat; 2009an A gripeak jota 17700 pertsona hil ziren. Normalki betiko gripearen ondorioz 250.000 pertsona hiltzen dira urtero urtero. Orain bai, gezurra esan nun Getarin, (zuen esku bukaera).

Diktadore gaiztoak

Luis GARDE

Diktadore gaiztoak? Baina ez dira gaiztoak munduko diktadore guztiak? Ez ote da gauza bera diktadore eta gaiztoa erratea? Ez, antza. Diktadore bat gaiztoa, ona edo erdipurdikoa izan baitaiteke, mendebaldeko gobernuarekin dagoen edo ez. Estatu Batuetako gobernuaren morroia den edo ez. Gure interesen menpe dagoen edo ez. Petrolioia ausarki saltzen digun edo ez, Arabia Saudiko jeke atseginek egiten duten bezala. Gero, horrelako estatuak diktadura teokratikoak baldin badira, hor konpon, ez da gure arazoa.

Gadafiren kontua, urrutirago joan gabe. Gaiztoena zen gaiztoen artean. Nazioarteko terrorismoari laguntza ematen omen zionez (hegazkin ingeles baten kontra atentatu bat agindu izana leporatzen zaio, non 200 bidaiari zibil hil ziren) Reagan presidentek bere etxea bonbardatu zuen, Libiako liderra hiltzeko asmoz. Estatu Batuen eraso hura zela-eta, garai hartako ezkertiar batek baino gehiagok Gadafirendako elkartasuna aldarrikatu zuen. Gurean ere santuak edo demonioak; zuria edo beltza.

«Erlatibo aski da, antza, politikan ona edo gaiztoa izatea. Eguzkia norat, poltsa harat»

Europako demokrazien aitzinean, Gadafi "izurritsu" bihurtu zen. Irakeko bi gerrak gertatu ondoren, libiarraren konbertsioa hasi omen zen. Arma biologikoak suntsitu zituen; programa nuklearra atzendu ere egin zuen. Azkenurren Gadafi, Gadafi kasi-demokrata zen. Ongi etorria ematen zitzaion herrialde guztietan, Espainia barne; Berlusconiaren sozio eta lagun maitia... Dirudienez Aznarren inguruarekin bazituen ere negoziak. Orain, Magreb-en bizilagunen aurrekusi gabeko erreboltak direla-eta, maskararik gabe erakusten du aurpegia; diktadore anker eta odoltsu bati dagokiona. Nire susmoa, hala ere, zera da: Europak lagundutako errebeldeek irabazten ez badute oraingo gerra, eta azkenean Gadafirekin akordio batera ailegatu behar badira transizio politiko moduko bat-edo egiteko, berriz ere salduko digute azken finean Muamar ez dela horren gaiztoa, bere gauza onak izan dituela, bere inguruko jendearekin negoziatzen ahal dela, eta abar.

Adibide pare bat gehiago:

Sadam Hussein bera estatubatuarren laguna zen Iranen kontrako gerran. Bakarrik amerikarrei komeni zitzaientean salatu zituzten kurdoen kontrako eraso hiltzaileak. Tunez-eko eta Egiptoko presidentek, okzidentearen aldekoak zirenez, moderno eta demokratik ziren, beraiek eta beren alderdiak Internazional Sozialistaren partaide, azken erreboltekin beraien lagun ohiek diktadore gaiztotzat eman zituzten arte. Erlatibo aski da, antza, politikan ona edo gaiztoa izatea. Eguzkia norat, poltsa harat.

Irakurleak mintzo

Baztango
Batzar
Nagusietako
kronika
maltzurari
erantzunaJulen MITXELTORENA
(Baztango Ezker Abertzalea)

Apirilaren 2an Baztango Batzar nagusiei buruzko artikulua agertu zen *Diario de Noticias* egunkarian. Han idatzitako gezur eta faltsukeriaz Baztango Ezker Abertzaleak argibide hauek agertu nahi ditu: -Alde batetik Ezker Abertzaleak Batzar Nagusietan duen ordezkaritza bakarria azken udalhauteskundeetan hautatutako bi zinegotziak dira, baina alderdien lege antidemokratikoarengatik hauek ezin izan dute beren kargua hartu. Egoera hau ahal izan dugun guzietan salatu dugu eta honek instituzio hauen demokrazia eskasia erakusten du. - Bertzetik N.P. kazetariak Batzar nagusian mozioa aurkeztu zuten Baztango alkateen eta ezker abertzalearen artean egiten duen lotura gezurra hutsa da. Gezurra erran eta manipulatzeko goitizena erabiltzen duen kazetari honek ederki dakien bezala, herrietako alkateen hautaketa ez da alderdi baten izenean egiten; herri bakoitzak batzarren bidez hautatzen ditu. - Honen segidan N.P. kazetaria eta Diario de No-

ticiasen arduradunak salatu nahi ditugu, ezker abertzalearen lana zailtzen jartzeko helburu bakarrekin informazio manipulatuak eta alderdikoiak behin ta berri emateagatik eta besteagatik. - Akitzeko erran behar dugu, bailaran gertatzen den guziaren gibeletik ezker abertzalea dela pentsatzeak, N.P. kazetariak egiten duen gisan, gure kontrako obsesio itsua bertzerik ez duela erakusten. Agerian uzten du errealitatea ez duela onartu nahi. Egiazki herriarren eta herrietako alkateen ezinegona azalarazten duena NaBairen autokritikarako ezintasuna eta prepotentzia dira.

Apirilaren 1eko
batzar nagusiari
buruz

Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Elbete, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekaroz, eta Zigako alkateak, eta Baztangoiza eta Erberoko junteroak.

Apirilaren 1ean izandako Batzar Nagusiaren ondorioz, *Diario de Noticias* egunkarian argitaratutako artikulua aitzinean zenbait aipamen egin behar dugu, uste dugulako informazioaren manipulazio hutsa dela edo, beheren, hor erraten dena ez dela egia.

1. Lehenik eta behin, garbi geldi daiela herrietako alkateek ez dugula talde politikorik ordezkatzeko eta ezker abertzalea ez



Bota bertsoa

Julio SOTO • Neurria: Hamarreko Haundia

Bi esku, bi begi, bi belarri... bi txapel

Nere gorputza erreparatuz
ohartuko nintzateke
bi: belarriak, begiak, hankak
oinak, eskuak leudeke
txapelak ere bi dauzkat orain
hirugarrena lortzeko
ordea bihotz bakarria daukat
batekin bizi daiteke
ta bihotz bakar horrek eskerrak
eman nahi lizkizueke.

Garrantzitsua ez da txapelak
joatea batetik bira
Apirilaren bederatzian
zortzi ahotsen disdira
frontoi bat bero, frontoi bat lepo
hitz jolasari begira
bertso saioak, bertsozaleak
ugaritzen ari dira
Nafarroako bertsoarentzat
garrantzitsua hori da.

dagoela Batzar Nagusian. Beraz, ezker abertzaleak ez du deus proposatu, alkate talde batekin egiten duen proposamena azken Batzar Nagusian. 2. Guk ez dugu proposatu, inondik inorat ere, legea ez betetzea. Gure proposamenez Baztanen egiten diren herri lanetan bertako enpresa guztiei lehentasuna eta aukera berdina ematea, enpresa horiek dituzten lanpostuak mantentzeko, beti ere legalitatearen barnean.

3. Artikulu horretan aipatutakoa estrategia bat da, benetan garrantzitsuak diren gaiak ez aipatzeko, hala nola Oharrizko "harrobia". Herri lurren kudeaketa Batzar Nagusiko kompetentzia dela atzenda eta bere gainetik pasatuta, Baztango udalak harrobiaren gaineko erabakia hartu du. Hala ere, Batzar Nagusiak alkatearen erabakia bertan behera utzi du eta komisio bat eratu du gaia behar bezala aztertzeko.

4. Artikuluaren idazlea, bere Batzar Nagusiko kide eta Diario de Noticiaseko berriemaile egoe-

raz baliatu da, berriz ere, informazioa manipulatzeko bere partiduen mesederako eta bere helburu bakarria herrietako alkateak mintzea eta jendea itzinean lotsaraztea da, horretarako gezurrak erran behar baditu ere. Bertze aldetik, Arraiozko alkateari gure elkartasuna adierazi nahi diogu. Batzar Nagusian errandakoa, agian, kontestutik kanpo gelditu zen, baina baztandar anitzen buruan dago, baita sinatzailenetan ere, eta horrengatik, bat egiten dugu berakin.

Akitzeko, anitz sentitzen dugu oraingo udalak ez duela eskertu herrietako alkateen lan egiteko gogo eta borondate ona eta beti gure kontra jarri izana elkarlanean aritu behar. Ez dugu interes politikoa edo ekonomikorik, gure herrien eta bailararen alde lan egiten dugu. Espero dugu maiatzean sartuko den udal korporazio berriak jarra irekiago izatea eta Bailararen alde lan egiteko prest dagoen talde batek udaleko suposatzen duen laguntza ohartzea.

Joxean Ortega
jaunari
erantzuna

Martin LEGARRA

Kaixo Joxean: Ondarreako TTPI-TTAPAn zuzendu didazun gutunak aukera ematen dit aspaldi honetan Nafarroan pillean dagoen gai honi buruz gogoeta labur bat egiteko, alegia, norenak ote dira eliza-erakinak eta bere inguruko ondasunak. Batzuek herriko udalarenak direla diote, beste batzuek herriko kristau elkartearenak; bada Eliza orokorrenak direla dioenik ere. Aspaldian aunitz idatzi eta hitz egin da gai honetaz, eta nire iritzia apaletan, orain arte argitaratu den gauzarik hobereena eta nire pentsaeratik hurbilena dagoena Diario de Noticias egunkarian iazko abuztuaren 27an, *El Arzobispado y la Plataforma de Ayuntamientos* izenburuarekin kristau eta apez talde batek idatzi zuten ar-

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Irakurleak mintzo

tikulua izan da. Irakurri nahi duenak berreskurara dezake Interneten. Dena den, uste dut arazo hau epaitegietan argitu beharko dela honddarreko. Nik, pertsonalki, uste dut gure herriko jendeak badakiela bereizten hagitz ongi zein diren udalaren ondasunak eta zein parrokiarenak eta orain arte, gure artean, ez dugu inolako arazorik izan gai honetan. Eta horren adibidea lgantzin izan dugu berriki: Udalak eskatu zion parrokiari eskola ondoko baratze bat, bertan haurrentzat erai-kin bat egiteko. Parrokiak saldu egin zion eta diru horrekin sakristia zaharra moldatu genuen. Niri, nahiz Arantzan nahiz lgantzin, obra aunitz egitea tokatu zait, zuk errepikatzen duzun bezala «lehengo herritarrek utzi diguten ondarea zaindu behar dugula» uste izan dudalako. Eta obra guztiak boronda-

tea izan duen jendearen laguntzarekin finantzatu ditugu; ez diogu eskatu laguntzarik udalari, uste izan dudalako berezi behar direla parrokiara alde batetik eta udalari bestetik. Eta airtortu beharra daukat egin ditugun obra guztiak batera eragozpenik gabe ordaindu ditugula jendearen borondate onari esker. Eta lgantzin jendeak badaki parrokiako etxea, errate baterako, herritarren zerbitzurako irekia egoten dela beti. Aurten Arantzako eta lgantzin organoak moldatzeko proiektuan sarturik gaude eta ziur nago jendeak, berriz ere, erakutsiko duela bere bihotz-zabaltasuna. Eta laguntza hori, jakina, bakarrik bere borondatez eman nahi duenari eskatzen zaio, eta «nola ez?» eman behar ez duela pentsatzen duenak eskubide osoa du ez emateko eta errespetatua izateko.

11 galdera labur

1975ean 264 biztanle zituen Eratsunek, eta orain. 159. Zer pasatu da?

Jendea kanpora joan da lanera, Iruñera eta beste tokietara, eta han bizitzen gelditu dira.

Zein etorkizun ikusten diozu herriari?

Ez dakit... Gu hemen gelditu gara, beste pareja gazte bat ere bada... Ea pixkanaka animatzen den jende gehiago.

Zer somatzen duzu faltan?

Ostatu bat. Ostatu bat egonez gero, egoteko leku bat gehiago izanen genuke.

Gobernua ezezkoan dago baina zer pasatuko ote da eskolarekin?

Aukerak bilatzen ari gara ea zer egiten ahal dugun. So-



lasten ari gara eta ez dugu etsia hartuko. Zerbait gehiago egiten saiatuko gara.

Zer eskatuko zenioke hauteskunde ondotik sartuko den Udalari?

Zerbait egiteko herriaren alde. Ea denon artean zerbait egiten ahal dugun.

Zer erranen zenieke Eratsungo gazteei?

Gu bezala, herrian gelditzeko. Nik ere lanera 45 minutu baditut eta ahal dena egiteko eskatuko nienke herria ez galtzeko.

Dentistarekin lanean ari zarenez, nolako hortzak ditugu ingurukok?

Denetarik bada. Baina lehen baino hobeki zaintzen da orain, nabaritzen da.

Zein afizio dituzu?

Bi haur dauzkat eta orain hurrekin egoten naiz.

Hurrekin egiteko gustatzen zaitzun plan bat?

Beraiekin jolastea, batez ere zaharrenari gustatzen zaio.

Eratsunek duen gauzarik politena?

Dagoen lekua, polita dela.

Bisitatu zenukeen toki bat?

Kanada.

Nagore ESKUDERO → Eratsungo gurasoa

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongariak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (jerezaterekin)

Etkez eteko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERROTAR

harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ANTZUZELAI

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel. 948 631 317 • Faxa: 948 631 587
Inungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Antzinaideak, angeluak, orna antzinoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tuminiak, entzizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

BETE BEHARREKOAK:

Lanpostua: Begirale arduraduna

- Batxilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa.
- Euskaraz jakitea ICI mailako titulazioa edo mankomunitatearen 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko proba gaitzua.

Lanpostua: Begiralea

- Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza.
- Euskaraz jakitea ICI mailako titulazioa edo mankomunitatearen 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko proba gaitzua.

ZERRENDAREN ERABILERA:

- Bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratatuzko erabiliko da.

ESKAERAK:

- Eskaerak maiatzaren 20ko 12.00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.

INFORMAZIOA:

- Deialdia www.bortzirriak.org webgunean dago ikusgai.
- Informazio gehiago nahi izanez gero **deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.**

Arantzan, 2011ko apirilaren 28an
Mankomunitateko lehendakaria, Ainara Maia Almandotz

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Telefonoa: 948634125. E-posta: euskara@bortzirriak.org
Helbidea: Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA
www.bortzirriak.org

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Julio Sotok lortu du bere bigarren txapela

Buruz burukoan gailendu zaio Xabier Silveirari

TTIPI-TTAPA | IRUÑEA

Julio Sotorentzat izan da aurtengo txapela ere. Nafarroako Bertsolari Txapelketa bigarren aldiz irabazi du Gorritiko gazteak eta horrela osatu du «guztia binaka izateko falta zitzaiena: bigarren txapela». Izan ere, agurrean gorputzari begira jarri zen, bi hanka, hanka artean ere bi, besoak bi, begiak ere bi, eta belarriak ere bat-bi, eta oraindik txapel bakarra zuela kantatu baitzuen. Saio ederra egin zuten apirilaren 9an taulara igo diren zortzi bertsolariak, eta Labrit pilotalekuan egon zen giro ederrak lagunduta, bertsolaritzaren festa haundia izan zen. 1.300 bertsosaleek lepo bete zuten hiriburuko pilota plaza.

Finala estu joan zen eta buruz burukoan erabaki zen txapela. Julio Sotoren eta Xabier Silveiraren arteko alde tikiakenez, buruz buruko bi ariketa egin behar izan zituzten. Azkenean, Sotok lortu zuen puntuaziorik altuena, lau puntu eta erdi kendu zizkion Silveirari. Hirugarren postua Estitxu Arozena lesakarrarentzat izan zen, laugarrena Jon Barberena elizondarrarentzat, bosgarrena Julen Zelaieta beratarrarentzat, seigarrena Xabier Terreros lesakarrarentzat, zazpigarrena Eneko Lazkoz etxarriarentzat eta zortzigarrena Gaintzako Oskar Estangarentzat.

Manolo Arozena Nafarroako Bertsosale Elkarteko lehendakari ohiak jantzi zion txapela Sotori. Gainera, txapelketa hau ziklo baten amaiera ere izan dela aipatu eta heldu den urtetik aitzinera txapelketa berze formato batean eginen dela ere iragarri zu-



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Manolo Arozena Nafarroako Bertsosale Elkarteko lehendakari ohiak bertsotan, gibelean finalista izan diren eta izan ez diren finalistak dituela.

en Arozenak. Erranda-koaren artean, aipatze-

TXAPELA NORI

«*Etxetik urrun ziega batean, alaba daukan aitari, batean seme bat galdu duen amari, elbarritasun bat daukanari, minbizia daukanari, maitasunean bihotza mila, puska egin zaionari, bizitza ez da beti izaten irrifarraren atari, txapel bat nola eman didaten, beste behin ere opari, daukadan poza ematen diot, sufritzen ari denari*»

Julio SOTO
Azken agurra

koa da urtero egin beharrean, beharbada bi urtetik behin egingen dela Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Hurrengo

beraz, 2013an.

Azken agurren txapeldunak sufritzen ari direnei eskaini zien txapela.

SAILKAPENA

1. Julio SOTO (Gorriti)	759 puntu
2. Xabier SILVEIRA (Lesaka)	754,5 puntu
3. Estitxu AROZENA (Lesaka)	527,5 puntu
4. Jon BARBERENA (Elizondo)	515,5 puntu
5. Julen ZELAIETA (Bera)	512,5 puntu
6. Xabier TERREROS (Lesaka)	507 puntu
7. Eneko LAZKOZ (Etxarri Arantz)	495 puntu
8. Oskar ESTANGA (Gaintza)	479,5 puntu

BERA Zero ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinoarra, ormiarra, kukuxu...) eta orriak zuzentzek garbitu nahi baduzu, daitu! Termite eta Pipien tratamenduz

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zelaia, 42 A • BERA

Zeramikaren benta
Vente du Carrelage

asteartetik ostirala arte
09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Fax.: 00 34 948 59 93 02
Mug.: 06 15 11 52 23

www.laventaducarrelage.com

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

BIDASOA
TELURAK - PERTSARRAK
KOTXERAK - AKTIONKOTXERAK
MOTOTERRAK - BIKIPIKETA
T.F. 659 971 442
BERA

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

UDALA → OHARRA

Uraren kontsumoarekin arduraz jokatzeko eskatu du Udalak

Ura aurrezteko gailuak banatuko dira

TTIPI-TTAPA

Sud'eau europar proiektuaren barne, hainbat ekimen lantzen ari da Udala uraren erabilera zuzentzeko eta arrazionala egiteko. Udala instalazio batzuetan ur kontsumoa murrizteko izan da hartutako neurrietako bat. Toki Ona udal kiroldegian, Matzada futbol-zelaian, Ricardo Baroja ikastetxean eta udako igerilekuetan hainbat neurri hartu ziren 2010ean: dutxa

eta komunetan ura aurrezten duten dispositiboak paratu, hartu eta kontagailuetan presio murriztaileak, ureztatze sarean hezetasun sentsoarekin eta drenaje perimetrala futbol-zelaian. 2013ra arte gauza gehiago egi- tea aurreikusia dago.

Herritarrei ere zuzendu zaie Udala, «ura tajuz aurrezteko» eskatuz. Azalpenekin liburuxka bat banatu dute etxerata eta sukaldeko eta dutexetako kaniletan paratzeko ura aurrezteko bi gailu ere banatuko dira. Udaletxera joan behar da horiek eskuratzeko.



ARGAZKIA: KORRIKA

Korrika jendetsua

Tarteka euria egin bazuen ere, ez zen horregatik jendea etxean gelditu eta herri- tar aunitz atera zen euskararen alde lasterka egitera. Lekukoa eraman zutenen artean, berriz, hauek: Manttale taldea, Bortziri sukaldeak, Altzugarai poltsak, Larun Mendi Taldea, Savera-Funverako ELA, Agerra Mendi Taldea, Bortziritako Pilota Eskola, Toki Ona institutua, Labiaga ikastola, Ricardo Baroja eskola, Labezar okindegia, Botxo ostatua, Kaxerna Gaztetxea eta Espidobaita, Katakua ostatua eta Herri Kirol Taldea, Gure Txokoa, Errekaldeko lagunak, Ikuilu ostatua, Xuga ostatua, Alkoko langileak, Zelaieta tailerreko langileak, Amaleun arraindegia, Bortziritako euskaltegia, Etxerat elkarteak, LAB sindikatua, Berako Ezker Abertzalea, Udala...

Antzerkia Kaxernan

Kaxerna Gaztetxeak antolatuta, ortziral honetan, apirilak 29, antzerkia izanen da Kaxernan. *Pedro y el capitán* antzezlan eskainiko du Zaragozako Teatro Pezkaio taldeak, 22:00etan.

Soinketa Eguna

Arkupeak elkarteak antolatuta, Soinketa Eguna egingen da ortzegunetan, apirilak 28. Hainbat tokitako jendea bilduko da kiroldegian 11:00etatik 13:00etara. Gero bazkaria egingen dute.

Haur kantari jaialdia

Nafarroakoan ederki moldatu ondotik, Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketarako txartela eskuratu du Jesusen Bihotza ikastetxeko Larun taldeak. Ekainaren 11n kantatuko dute Hazparnen.

ARALAR



Marisol TABERNA IRAZOKI

2. Jon Abril Olaetxea. 3. Fernando Berasain Gainza. 4. Jaione Andueza Intxaurre. 5. Nekane Perez Irazabal. 6. Koro Irazoki Arburua. 7. Angel Garcia de Dios. 8. Arantza Agirre Altube. 9. Jokin Iturria Lekuona. 10. Itziar Ibarra Parrondo. 11. Gabriel Errandonea Goikoetxea.

BILDU



Jose Mari TELLETXEA MITXELENA

2. Garazi Taberna Telletxea. 3. J.M. Portu Berasategi. 4. Andrea Gouraud Alzugarai. 5. Jon Mikel Matxiarena Aldalur. 6. Ander Mitxelena Agesta. 7. Ines Matxiarena Aldalur. 8. Ugaitz Ado Prieto. 9. Unai Ezeiza Bergara. 10. Adela Arlegi Goienetxe. 11. Ixone Telletxea Uranga.


EAJ-PNV



Santiago ALTZUGUREN MATXIKOTE

2. Isidora Agirre Ubiria. 3. Zoila Jimenez Aviles. 4. Purificacion Gartzia Maia. 5. J. Antonio Telletxea Bertiz. 6. J. Karlos Martiarena Cordoba. 7. Jenny Diaz Verdejo. 8. J. Ignacio Martinez Gorostiza. 9. Saioa Mitxelena Gortari. 10. Cecilio Pando Rojo. 11. Francisco Zozaia Arretxea.

UPN



Juan LOSA OCARIZ

2. Nelva Ramirez Azcoiti. 3. Javier Zancas Martin. 4. Ignacio Perez Vizcaino. 5. Conchi Mateo Perez. 6. Jaime Ubillos Minondo. 7. Ana M. Perez Marco. 8. Pedro M^a Gallego Arricibita. 9. Agustina Iturriaga Gonzalez. 10. Jose Javier Esparza Abaurrea. 11. M^a Carmen Ferrer Cajal.

PPN



Eduardo GUTIERREZ DE CABIEDES

2. Jacobo Lorea Bobo. 3. M^a Cristina Bautista Vargas. 4. Jose Leandro Gisbert Verdu. 5. Isabel M^a Rodriguez Prats. 6. Santiago Dusmet Mingot. 7. Juan Muñoz Serrano. 8. Gertrudis Alonso Gonzalez. 9. Enrique Lozano Sanchez. 10. Judit Roda Lucas. 11. Ana Mato Adrover.

LESAKA

ELKARTEAK → SAN FERMINEKO ERRETIRATUEK

Ibilaldi arautua eta Ama eta Amatxien Eguneko bazkaria antolatu dituzte maiatzaren 1ean

Sandra Legasak elikaduraz hitzaldiak emanen ditu maiatzaren 25 eta 26an

Aitor AROTZENA

Maiatzaren 1ean ohiko ibilaldi arautua antolatu du San Fermin erretiratu elkarteak. Goizeko 09:30etik aitzinera izen eman eta 10:00etan abiatuko dira lehenbiziko partehartzaileak erretiratu en egoitzatik. Landazelaitek fabrikako errepidera aterakodira eta Osasun Zentrua, parkea, Sumusa, Kastillobaita, Irubide, eta Martxanpaitan barna Txakaingo iturriraino joan ondotik, Matxitenea, Lizardibaitako zubia, Eroski eta Plaza Zaharran barna bueltatuko dira egoitzako helmugara. Segidan, hameketakoa izanen da bazkideentzat.

Egun berean, Ama eta Amatxien Eguneko bazkaria ere eginen dute erretiratuak. Txartelak 20 eurotan izan dira salgai apirilaren 24a bitartean. Kroketak, entsalada

epela, legatza eta izozkia txokolate beroarekin izanen dute bazkaltzeko, dena ura, ardoa, cava, kafea eta koparekin hornitua. Bertze aldetik, maiatzaren 24 eta 25ean, elikadurari buruzko solasaldiak antolatu ditu San Ferminek, Sandra Legasa dietistaren eskutik. 17:00etatik 18:00etara eginen dira saioak egoitzan.




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Beti Gazteko futbol talde nagusia Ohorezko Mailara igo da

Denboraldi bikainaren ondorioz, berriz ere Ohorezko Mailara igo de Beti Gazteko futbol talde nagusia. Bi partida soberan izan ditu, apirilaren 16an Behobiarri 2-0 irabazita, 7 puntuko abantaila ateratzen baitzion bigarren sailkatuari. Denboraldi osoan 2 partida bertzerik ez ditu galdu. Hau idazterakoan, azken 19 partidak segidan galdu gabe eginak zituen (14 irabazi eta 5 berdindu). 2010eko azaroaren 6an galdu zuen azken partida eta horrek ematen du egin duen denboraldi bikainaren neurria. Herrian barna traktorean pasiatuz ospatu zuten.

BILDU



Pello ETXABIDE GARCIA

2. Koldo Erkizia Otxoteko. 3. Ainara Flores Compains. 4. Severiano Txoperena Matxikote. 5. Izaro Mitxelena Reondo. 6. Jose Emilio del Rio Etxeberria. 7. Lorea Flores Compains. 8. Xabier Maritxalar Etxabide. 9. Eukene Oiarzabal Maritxalar. 10. Aitor Arotzena Albitzu. 11. Montse Fontan Lago.

EAJ-PNV



Jose Luis ETXEGARAI ANDUEZA

2. Esteban Etxebeste Apeztegia. 3. Iban de Prado Etxepeteleku. 4. Pello Apeztegia Altzugarai. 5. Victoriano Ruiz Alvarez. 6. Maribi Gortari Aldabe. 7. Nekane Goia Telletxea. 8. Jose M^a Portu Otxoteko. 9. Andoni Maritxalar Mendia. 10. Carlos Ubiria Portu. 11. Esteban Irazoki Irazoki.


PSN



Carlos Aitor YUSTE ARIJA

2. Jose Felix Aletxa Barrera. 3. Pedro Luis Rascon Macias. 4. Jose Antonio Navidad Piquero. 5. Jesus Angel Arca Ena. 6. Susana Losantos del Rey. 7. Miguel Pascual Cuesta Gonzalez. 8. Basilio Sanchez Lasheras. 9. M^a Eugenia Lorente Martinez. 10. Antonio Malo Lopez.

UPN



Ignacio IGEA SAINZ

2. Eduardo Carrasco Navarro. 3. Pablo José Urraca Raulera. 4. Raúl Bator Larequi. 5. Fco Javier Atienza Martínez. 6. José Iribas Sanchez de Boado. 7. Sergio Ramón García. 8. Rafael Fco. Cortijo Gorraiz. 9. Isabel Ezpeleta Iturralde. 10. Esteban Garijo Pérez. 11. M^a Isabel Garcia Malo.



AZPIEGITURAK → OBRAK BERRIAK

Elizako kanpandorrea berrituko da

Urtea akautu baino lehenagotik lanak bukatuko direla espero da

Obra honekin kanpandorreak duela 57 urteko itxura berreskuratuko luke –irudia-. Teilatuaren formazioaz gain, erlojuen posizioak ere izanen dute aldaketa.

Irune eta Itsaso

Orain dela bortz urte elizdorrea moldatzeko beharra ikusia bazen ere, lanak urte honen barrenean eginen direla espero da, Pello Apezetxeak erranduenez. Gaur egun egoera txarrean dago «itaizurak» direla medio.



ARGAZIAK: ONINTZE ZINKUNEGI

Joan da 17. Korrika

Giro ederrean joan da aurtengo Korrika. Altxata Kultur Elkarteak, Udalak eta Euskara batzordeak kilometro erdi bana erosiak zituzten Sunbilako Iruubieta etxalar aldera. 14:30 inguruan izan zen etxalartaren txanda eta jende andana bildu zen euskararen alde lasterka ibiltzera. Bertzalde, apirilaren 15ean Landagain eskolako haurrek Korrika Ttikia ospatu zuten. Herriko hainbat puntutan banatu ziren ikasleak adinaren arabera eta bata bertzeari lekukoa pasatuz herriari itzulia eman zioten. Ondotik frontoian taldeka banatuta lekukoarekin lasterketa ibili ziren. Egunari akabera ona emateko Guraso Elkarteak berendua eman zuen.

ETXALAR AINTZINERAT



Ignacio ATONDO UBERA

2. Jasone Mitxeloren Ozkaritz. 3. Mattin Maia Astier. 4. Inmaculada Gartzia Gartzia. 5. Iñaki Danboriena Ulazia. 6. M. Virginia Arburua Mihura. 7. Pedro Jose Mendikoa Etxeberria.

HERRI TALDEA



Miguel Mª IRIGOIEN SANZBERRO

2. Jose Mª Maia Ariztegi. 3. Maite Irisarri Babaze. 4. Leire Olagarai Goienetxe. 5. Juan Antonio Berrueta Dagerre. 6. Asier Maia Mikelestorenna. 7. Jose Ignacio Tomasena Zubieta.

INDEPENDENTEAK



Arantxa ZUBIETA AMEZTOI

2. Maria Mitxelena Urroz. 3. Pedro Galarrégi Zubieta. 4. Aitor Jose Sansiñena Sarobe. 5. Jose Antonio Terletxea Bergara. 6. Jesus Mª Irigoien Arretxea. 7. Agustin Arribillaga Danboriena.

PPN



Eloy VILLANUEVA CRUZ

2. Bernardina Santos Sanz. 3. Jose David Garcia Esteve. 4. Venancia Saez Serrano. 5. Jose Miguel Garcia Mujica. 6. Fermin Hernandez Vidal. 7. Maria Yolanda Estrada Madrid.

UPN



Jose Antonio GENUA IRIGOIEN

2. Juanmaria Olagarai Etxarte. 3. Mayte Bazterrika Migeltorenna. 4. Isidro Ariztegi. 5. Martin Santesteban Irisarri. 6. Jose Ignacio Berrueta Agirre. 7. Pedro Eza Goienetxe.

Javier Manterola
Tobako instalazioen
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

arropak • maindireak
mantak • nordikoak
toallak • kortinak
alfonbrak
Goya
Albano, 5 - Tel: 948 630 083

XITRELL
Alorre 1 • BERA
Tfnoa: 948 631 446

ZUBIONDO
Jatetxea
Agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAIFARROA
Tfno: 948 64 474

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

Primeran joan dira Udaberriko Bestak

Merkatuaren balorazio ona egin dute antolatzaileek

TTIPI-TTAPA

Zortzigarren urtez jarraian, Euskara Batzordeak Udaberriko Bestak antolatu zituen apirilaren 15, 16 eta 17rako. Ekitaldiak ez ziren ongi hasi, izan ere apirilaren 15erako antolatua zen bertso afaria ez zen egin, jende guttik izen eman zuelako. Larunbatean, berriz, eguraldia lagun, primeran atera zen haur

eta gurasoen mendi irteera. 10:00etan plaza-tik abiatu eta Isatsandiko luberriraino joan ziren 25 bat lagun. Gosalduta eta eguerdirako herrian ziren bueltan. Arratsaldean, eskolan hainbat ekitaldi izan ziren. Ikasleek eskolan egindako hainbat lan erakutsi zituzten eta bukatzeko, hirugarren ziklokoek bertso ipuinak antzestu zituzten. Izan ere, aurten ikasturte guztian bertso larritza lantzen ari dira Estitxu Arotzenarekin.

ESKERTZA

Aurten, hirugarren aldiz,



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Gisa guztietako puskak atera zituzten herritarrek merkatuan.

etxeko produktuekin eta bigarren eskuko puskin osatutako merkatua antolatu du batzordeak. Kasu honetan, bildutako dirua herriko dantza taldearentzat izan da. Aitzineko bi edizioak hagitx arrakastatsuak izan dira, eta hirugarren honetaz ere gauza bera erran behar da. Goizetik hasita, txistulariek herriari buelta eman zioten, herritarrek girotzeko. Eguerdi aldera dantzari tikiak saio bat eskaini zuten, eta arratsaldean herriko trikitilari eta pandero joleak aritu ziren.

Antolatzaileak hagitx kontent agertu dira merkatuaren emaitzekin. Hasteko, antolaketa parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete: aitzinetik etxeko puskak biltzen nahiz egun berean merkaturatu prestatzen, saltzen eta biltzen aritu diren guztiei, eta opilak egin dituztenei. Etxean egindako produktuak eta gainerako puskak musutruk eman dituzten herritarrei eta herriko ostatuei (zozketarako eman dituzten otorduengatik) ere eskerrik beroenak eman nahi izan dizkiete: «urtetik urtera errazagoa izaten ari da merkatu hau antolatzea, preziskeri denek duten borondateagatik».

adjudikazioa eginen du, sorosle lanetarako izan ezik. Hasierako prezioa 1.750 eurotan ezarri da (BEZa barne). Proposamenak aurkezteko epea, apirilaren 30ean bukatuko da 14:00etan.

Kinto bestak

Maiatzaren 7an bi kinto bazkari eginen dira Allinea jatetxean. Batetik, 1969 eta 1970ean jaiotakoak izanen dira eta bertetik 1971 eta 1972an sortutakoak. Maiatzaren 2rako eman behar da izena Allinean, 20 euro ordainduta.

Mendi ateraldia

Maiatzaren 14an Biltoki elkarteak Etxeberriko zekobordara mendi ateraldia antolatu du.

Herri kirolak

Kimu mailako proba konbinatuan, herriko Unanu taldea txapeldu izan da Nafarroako Herri Kirol Jolasetan.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Euskararen alde Korrikarekin bat

Herritar aunitz atera zen kalera apirilaren 11n Korrikak herrian barna eginiko bidean parte hartuz eta euskararen alde lasterka egitera. Lekukoa eraman zutenak, berriz, Guraso Elkarteak, eskola, Biltoki Tiki eta Biltoki, herriko euskalzaleak eta Udala izan ziren.



M. Lourdes
IBARLUZEA
IRURETA

2. Imanol Retegi Etxeberria. 3. M. Josefa Etxeberria Mendigutxia. 4. Urtzi Mattin Loiarde Iribarren. 5. J. Antonio Ortega Urrutia. 6. Angel Urtxegi Telletxea. 7. Ismael Iturbide Ibarra.



UDALA → ETXEBIZITZA

Medikuaren etxeko bizitza errentan paratuko da

Mirari Leiza herritarren eskaera bakarra izan da


Nerea ALTZURI

Medikuaren etxeko bizitzaren gaiaren inguruan azken hilabeteetan burubelarri aritu da Udala. Herritarren artean egindako inkesta lehenik, eraikineko lanak gero eta, obrak erakusteko ate irekiak egin ondotik, errentan jartzeko prestatu dute medikuaren etxea.

Eskaerak egiteko edo izen emateko epe bat paratu zen eta eskaera bakarra hartu du Udalak. Mirari Leiza Mitxelena herritarrari alokatzea erabaki du Udalak.

Biurrarena Eguna

Biurrarena abizena dau-



BILDU

Jaime ITURRIA MITXELENA

2. Imanol Artola Guridi. 3. Ander Almandoz Indakoetxea. 4. Koldobike Gorostiza Uriguen. 5. Ainara Maia Almandoz. 6. Inazio Madariaga Bergara. 7. Jose Jabier Mitxelena Ordoki.

katenen eguna ospatuko da maiatzaren 15ean Arantzan. 12:00etan meza eta 13:30ean bazkaria izanen dute Burladan. Izena emateko deitu 948634027 telefonora.

LEGARRA

● EGUNKARIAK	● FOTOKOPIAK
● ALDIZKARIAK	● ENKUADERNAZIOAK
● LIBURUAK	● PLASTIFIKAZIOAK
● OPARIAK	● FAX PUBLIKOA
● TABAKOA	

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA



ARGAZKIAK: KORRIKA ETA OSKAR TXOPERENA

Herritarrak Korrikan

Apirilaren 11n eskualdeko lurretan ibili zen Korrika. Igantziko bentetatik bideguru-tzerainoko tartean, herritarrek harturiko kilometroak izan ziren. Hainbat herritarren eskutan ibili zen lekukoa: Udala, Gazte Asanblada, eskola, Guratso Elkarte, Ekaitza elkarte, Aterpea... Bertzalde, aipatu, Ilaski Serranok, urte sail bat herrian bizi-tzen daraman telebista aurkezle bermeotarrak, *Mihiluzeko* bere lankide Kike Amonnarizekin batera, lekukoak barruan zeraman mezu sekretua idatzi zuela. Apirilaren 17an, Donostian Korrika bukatu zen eta hantxe jakin genuen Ilaski eta Kikeren eskutik, 2.500 kilometro baino gehiagoko bidea egin duen lekukoaren barrukoak.



ARGAZKIAK: I. UGALDE

Mozorro Besta arrakastatsua

Egun osoko egitarauarekin mozorro besta joan zen apirilaren 9an. Eguerdian bertso pilota jokatu zen. Pilotan, Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena batetik, eta Joseba Madariaga eta Xabi Elizalde bertzetik aritu ziren. Partida borrokatuan, bertsoak tartekatu ziren, Jon Maia eta Jexux Mari Irazuk botillero zirela. 16ra jokatu zen partida... eta 15na zihozazenean, Maiak eta Irazuk pilotari ekin zioten. Irazuk lortu zuen azken tantoa. Ondotik, aizkora apustu ederra izan zen: Julio Lukanbio eta Joseba Otaegi batetik, eta Xabi eta Oihan Larretxea bertzetik. Saio parekatua egin zuten eta ia batera bukatu zuten. Ondotik, 60 bat lagunek bazkaldu zuten Aterpean, giro onean eta bertsolariekin bazkalondo umoretsua izanez. Ilunabarrean, PelleTiki-ren aldeko zozketa egin zen eta gauean, Laja eta Alabierrekin dantzaldia izan zen.

DONEZTEBE

GIZARTEA → UDALAK ANTOLATUTA

Malerrekako V. Ahari Lehiaketa eginen da maiatzaren 6ko Udaberriko Ferian

Sei sari
banatuko dira

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, Udalak Udaberriko Feria antolatu du Cederna Garalur elkartearen eta Nafarroako Gobernua-
ren laguntzarekin. Maiazaren 6an egingen da:

- 11:00-13:00: Merkatuko Plazan, V. Ahari Lehiaketa.
- 10:00-14:00: eskualdeko artisauen erakusketa.
- 13:30ean ahari lehiaketako sari banaketa. Latxa arrazako ahari Le-

hiaketaren bosgarren edizioa izanen da, eta Malerrekako baserri-
rrei bideratua. Artzain ba-
koitzak nahi adina ahari
aurkeztu ahal izanen di-
tu eta izen-ematerakoan
ez da kuotarik kobratu-
ko. Baina 11:00etarako
Merkatuko Plazara era-
man beharko dira. Sei
sari emanen dira: hiru
mutur gorriendako eta
bertze hiru mutur bel-
tzendako. Sariak bi ka-
suetan berdina izanen
dira: lehen saria 120 eu-
ro; bigarrena 70 euro eta
hirugarrena 50 euro. Aha-
riak aurkezteagatik 30
euro emanen zaizkie.



EA

**Miguel
SAN MIGUEL
AZPIROZ**

2. Oscar Mindegia Bi-
degain. 3. Gloria
Aguerrri Asiain. 4. Jo-
se Luis Legarra Iriar-
te. 5. Pedro Sanz Re-
karte. 6. Eduardo
Oiartzabal Mitxeo. 7.
Ana Etxeberria Sis-
tiaga. 8. Juana Mu-
ñoz Amorena. 9. Jo-
su Urreaga Burgete.



PPN

**Sergio
ACHUTEGUI
PUERTA**

2. Serafin Lopez Flo-
rez. 3. Yolanda Asin
Sanchez. 4. David
Ciudad Sesmero. 5.
Francisco Gil Gil. 6.
Otilia Pico Gomis. 7.
Joaquin Matas San-
chez. 8. Isabel Be-
rrenguer Ruiz. 9. Al-
varo Moraga Valien-
te.



ARGAZKIAK: ITZIAR IRIGOIEN

Korrika jendetsua

17. Korrikaren harira herrian egin diren ekimenak ez dira gutti izan. Apiril hasieran egin zen Malerrekako Korrika Bestaren ondotik, hilaren 11n, Korrika Ttikia egin zen, goizean 10:00 aldera. Langar pixka batekin bazen ere, herriari buelta eman zitzaion eta bost lekuko aldaketa egin ziren handienek ttikien txanda pasatuz. Beroketa polita eguerdiko Korrika Nagusiarri begira. Bertze herri aunitzetan Korrika Nagusian sartu baziren ere, Donezteben eguerdia pasatu zenez eta ikasle gehienak jantokian gelditzen direnez, ttikienak ez ziren Korrika nagusian sartu. Hala ere, guraso mordoxka elkartu zen Intzakardin bokata jan eta Korrika Nagusian parte hartzeko prest. Irakasleek Oteiza auzoan erositako kilometroan irakasle eta institutuko ikasle andana sartu zen korrika egitera eta herrira talde potoloa sartu zen, karrikak betez. Adinekoak, jende heldua, gurasoak seme-alabekin, umeen silleta taldetxoak ere bai, eta gazte eta gaztetxo aunitz. Orain arteko Korrikarik jendetsue-
na izan zela ere erran daiteke, eta gainera, astelehen eguerdia zela gogoratu be-
har da, jende aunitz lanean edota kanpoan ikasten ari baitzen. Bertzalde, dantza
plazan ekimena ere polita izan zen, eta jendea arras gustura egon zen. 30 pertso-
na inguru aritu ziren 11 doinu ezagun dantzatzun txistulari, akordeoiari, batearijo-
le eta baxujolearen eritmorra. Dantzen ondotik, karaokea egin zen Korrikako abes-
ti eta bertze euskal abesti klasikoekin. Antolatzaileek balorazio ona egin dute.

Merkatariak karrikara aterako dira larunbatean eta asteburu osoan pintxo lehiaketa egingen da

Apirilaren 30ean gurekin gelditu.
Horrela eskatu dute Doneztebarrak
elkarteko merkatariek, udaberriare-
kin batera eta urteroko hitzorduari
hutsik egin gabe, larunbat honeta-
rako antolatu duten Merkatariek kar-
rikaren ekimena dela eta. Izan ere,
larunbat honetan, egun osoan eu-
ren produktuak erakutsi eta salgai
edukiko dituzte Santa Luzia plazan.
10:00etatik 19:30era egonen dira
merkatariek karrikan. Horrekin ba-
tera, musika ere izanen da eta
11:00etatik 13:00etara eta 17:00eta-
tik 19:00etara betiko jokoak ere bai.

Azken hau Amezitia ostatu/hostala-
ren eta Bertiz BTTren laguntzarekin
antolatu dute.

20:00etan zozketaren txanda izan-
en da. Saridunak maiatzaren 7an
gastatu beharko du 2.000 euroko
balioa duen erosketa txartela. Den-
da bakoitzean 180 euro gastatu ahal
izanen ditu.

Egun berean eta biharamunean,
maiatzak 1, pintxo lehiaketa egingen
da. Herriko ostalariek irudimena
landuz euren onena aterako dute
jendeak dasta dezan. Aurtengoa
laugarren aldia izanen da.

KULTURA → HERRIKO DANTZARIEN ZOZKETA

Dantzari Ttiki Eguneko gastuei aurre egiteko boletoak paratu dira salgai

Agoitzen
eginen da
Nafarroako
Dantzari Ttiki
Eguna

Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Dantzari Ttiki Eguna ekainaren 5ean, igandearrekin, ospatuko da Agoitzen, eta herriko dantzariak bertan egonen dira. Baina horretarako dantzarien gastu batzuk estali behar dira eta helburu horrekin ari dira boletoak saltzen dantzari ttikiak herrian.

50 zentimo balio du boleto bakoitzak eta kirolari, musikari eta pertsonaia garrantzitsuek sinatu edo dedikatutako arropa, liburu, CD eta bertzelakoak zozketatuko dira.

Korrikarekin bat

Nahiz eta aurten Korrika ez den herritik pasatu, Ibintza Kultur Taldeak azken urteetan bezala, kilometro bat erosi zuen apirilaren 11n pasatu zen Korrikan. Sunbillatik Igantziko Bentetarako bidean, ibilbideko 907. kilometroa egokitu zitzaion Ibintzari, eta 14:20 aldera hartu zuen lekukoa. Eskolan, bertalde, Korrika Ttikia eginen zuten guraso, irakasle eta ikasleek.

Herriko Ostataua eta etxebizitza errentan

Apiril hasieran egin zuen Udalak Herriko Ostataua eta etxebizitza errentan emateko deialdia. Astearte honetan, apirilak 26, akitzekoa zen eskaintzak aurkez-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Dantzari gaztetxoak duela zenbait urte bestetan eskaini zuten emanaldian.

teko epea, baina joan den aste hasieran oraindik ez zuen inork proposamenik aurkeztua.

Epea akitzean aztertuko dira eskaintzak,

baldin eta aurkezten badira. Errentamenduen iraupena bortz urtekoa izanen da eta bertze bortz urtez luzatzeko aukera izanen

da. Behin behineko fidantza 600 eurokoa izanen da eta hileko errenta 350 eurotan hitzartu dute (BEZA gabere).

Eskualdeko sei herritan ez da zerrendarik aurkeztu hauteskundeetan

Elgorriaga,
Arano, Urroz,
Ituren, Beintza-
Labaien eta
Donamaria

Arano, Donamaria, Elgorriaga, Ituren, Urroz eta Beintza-Labaienen urrian izanen dituzte berriz ere Udala osatzeko hauteskundeak.

ez Narbarten eta ez Oieregin ere.

ZERRENDA BAKARRA

Bederatzi herritan dagoeneko badakite zein taldek osatuko duen Udala, zerrenda bakarra aurkeztu baita. Honako hauek dira: Areso, Eratsun, Ezkurra, Goizueta, Oiz, Saldias, Sunbilla, Igantz eta Zugarramurdi.

KONTZEJURAKO ZERRENDARIK EZ BERTIZARANAN

TTIPI-TTAPA

Sei herritan ez da zerrendarik aurkeztu maiatzaren 22an eginen diren udal hauteskundeetara. Hala,

Bertizaranan ere ez da kontzejuak berri-
tzeko aukerarik izanen,
zerrendarik ez baita
aurkeztu ez Legasan,

KABITAZIOA 35€ saioko
Liposukzioaren alternatibarik hoberena
Saio bakoitzean 1 eta 4 cm arteko
bolumen galtzea

ESTIBALIZ
estetika zentrua

T. 948 581 360 • 606 738 466
Xalbador, 14 • ELIZONDO | Zazpigarutze, 6 • DONEZTEBE

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → AURTEN 24. ALDIZ

Azken urteotan hutsik egin ez duen Amerikanoen besta igande honetan eginen da

Goizean meza eta eguerdian bazkaria eginen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ameriketan ibilitako artzainak igande honetan bilduko dira, 1987. urtetik egiten duten Amerikanoen besta ospatzeko helburuarekin.

Aurten, maiatzaren 1a igandearekin tokatzen dela aprobetxatuz, 11:00etan meza izanenda, Ameriketan hil diren hemengo edo han ibili eta hemen hil diren artzainen omenez. Aurten bereziki bi izanen dituzte gogoan, Kalifornian berriki hil diren Joakin Ganboa eta Juan Agesta.

Mezaren ondotik, 13:30 edo 14:00 aldera, bazkaria eginen dute Ariztigain kanpinuean. Orain arte Ulibeltzak elkarteetan egin izan dute otordua baina aurten obrak egin beharrak direla-eta, kanpinuean egi-tea erabaki dute.

Jesus Mari Jorajuriak azaldu digunez, 35 bat lagun bilduko dira, gehienak herritarrak, baina baita Baztan, Ultzama eta Iturendik etorritako bortz lagun ere. Kopurua urtetik urtera murrizten joan dela kontatu digu Jorajuriak, hazi zirenean «aunitz ge-

hiago» zirela erranez. Ameriketan eta hemen bizi diren herritarren kopurua ere berdindu dela adierazi digu: «lehen han gehiago ziren, baina orain kopuru berdina gara han eta hemen».

LURRAZPIAN EGINDAKO OGIA

Ameriketako ohiturari eutsiz, lurrazpian egositako ogia jateko aukera ere izanen dute igandean, bezperan edo egunean berean egindakoa, etxeko gaztarekin. Nahi duenarentzat, berendu-afaria ere eginen da kanpinuean.

BILDU



Amets

INDA GORRIARAN

2. Paco Errandonea Zubietta. 3. M^a Jose Mitxelena Otegi. 4. Margarita Capdequi Aiertza. 5. Mario Mitxelena Bazterrika. 6. Florentino Gelbenzu Almandoz. 7. Mikel Patxi Martinez Barranco Garraikoetxea.



ARGAZKIA: AMAIA ARRETXEAA

Euskararen alde Korrika

Escolako neska-mutikoak ere animatu ziren euskararen aldeko lasterketara. 17. Korrikaren lekukoa erosi zutenak Antrotokiko gazteak, Ulibeltza elkarte eta Udala izan ziren.



ARGAZKIA: NIEVES

Kinto bestak

Kinto bestak egiten ari dira herrian azken aldian. Apirilaren 2an, adibidez, 1968, 1969, 1970, 1971 eta 1972 urteetan sortutako txanda izan zen. Ariztigain kanpinuean bildu ziren.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontrabutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESACA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

UDALA → UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

20 urteren ondotik bi zerrenda aurkeztuko dira hauteskundeetara

Herriko Taldea eta Eutsi dira aurkeztu diren bi taldeak

Fermin ETXEKOLONEA

Orain dela lau urteko udal hauteskundeetan ez zen talde bat bera ere aurkeztu Zubietan. Eta hauteskunde

berezi batzuen bidez proposatu ziren oraingo alkatea eta zinegotziak. Lau urte beranduago, berriz, bi zerrenda agertu dira herriaren alde lan egiteko prest.

Zubietan, 1991n aurkeztu ziren bi zerrenda azken aldiz udal hauteskundeetara, baina geroztik zerrenda bakarra egon da. Aurten

ere bi izanen dira: Patxi-ku Mitxelena buru dela Herriko Taldea eta Jose Jabier Juanikorena zerrendaburu duen Eutsi taldea. Maiatzaren 22an horien artean au-

keratu beharko dute herritarrek.

Zuzenketa

TTIPI-TTAPAREN aurreko aldizkarian, Udalak Korrikari 600 euro-

ko laguntza eman zio-la aipatu genuen, baina informazio horretan akats bat egon zen: dirulaguntza 100 eurokoa izan da. Barkatu eragozpenak.

HERRIKO TALDEA



Patxi MITXELENA ZELAIETA

2. Fermin Etxekolonea Urriza.
3. Lino Elizalde Loiarde.
4. Ernesto Domingez Olea.
5. Pio Elizalde Tellexea.
6. Igor Babaze Baleztena.
7. Pedro Jesus Santesteban Satesteban.

EUTSI



Jose Jabier JUANIKORENA JUANIKORENA

2. Mikel Tellexea Santesteban.
3. Iñaki Etxeberria Uhalde.
4. Juan Luis Loiarde Santesteban.
5. Joseba Mendiburu Mugika.
6. Fermin Santesteban Elizalde.
7. Jose M^a Juanikorena Indakoetxea.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Gaiarre antzokian kantari

Haur Kantari Jaialdiko lehendabiziko kanporaketan aurrera egin ondotik, apirilaren 17an Iruñeko Gaiarre antzokian jokatu zen finalean aritu zen kantari argazkiko Joare taldea. Iturengo eskolako ikasleak diren neska-mutil hauen artean bi dira zubietarrak: Duba Saadi eta Mikele Etxekolonea. Zuzendari lane-tan Arantxa aritu da, hau ere herritarra. Esperientzia polita izan zela kontatu digute eta ea hurrengo urtean ere berriz animatzen diren.

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
S00-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

ERREKALDE
PLATER KONTRAKTAK
PINTURAK
KONKRETOA

TFONO: 948 630 259 - 6224

J. RAMOS
zolak akutzilatuta eta
barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → URTEROKO HITZORDUA

Ittur Ondo Elkartearen besta maiatzaren 7an eginen da

Eguerdiari
aizkora
apustua izanen
da eta ondotik
bazkaria

Amaia MINDEGIA

Urtero bezala, maiatzean Ittur Ondo Elkartearen besta eginen da Beintza-Labaienen.

Aurtengoa maiatzaren 7an, larunbatarekin, izanen da. Hasteko, eguerdian urteroko tradizioari eutsiz, aizkora apustua izanen da herritarren artean.

Ondotik bazkaria eginen da Ittur Ondon elkarteko kideen artean, eta arratsaldean musika izaten da ilunabarrera arte.



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIA

Kirola eta besta, bietarako aukera izaten da maiatzeko bestan.

BERTIZARANA

ELKARTALDEA



**Andres
ETXENIKE
IRIARTE**

2. Blas Andresena Etxeberria. 3. Mertxe Ibarra Cia. 4. Enrike Jaukikoa Sanz. 5. Alfredo Iriarte Arretxea. 6. Julen Grajirena Ariztegi. 7. Luis Urriaza Larrea.

BILDU



**Antonio
ERREGERENA VERA**

2. Josune Ibarra Santxotena. 3. Jose M^a Etxart Ansalas. 4. Aintzane Gotzone Martirena Hernandorena. 5. Idoia Hernandorena Amestoi. 6. Koro Ibarra Santxotena. 7. Jesus M^a Oteiza Etxarri.



UTZITAKO ARGAZKIA

Narbarten ere euskararen alde

Korrikarekin bat eginez, euskararen aldeko lasterketaren lekukoa eraman zuten Narbarteko gaztetxoek.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

UDALA → UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

Maiatzeko hauteskundeetarako ez da zerrendarik aurkeztu

Orain arte ez da sekula horrelakorik gertatu

Joseba URROZ

1986ko hauteskundetarako aukeratu zen modua erabili izan da beti Udalerako zerrenda osatzeko. Alegia, herritarrek lau izenekin botoa emanez, boto gehien dituzten 15 lagunak deituta osatu izan da orain arte gero hauteskundeetan aurkeztuko den zerrenda.

Baina gaur egun arte gertatu ez zena, 15 lagun horietatik denek ezezkoa eman dutela da, eta ondorioz, maiatzeko hauteskundeetarako ez da zerrenda-

rik izanen herrian. Ea udazkenerako zerbait konpontzen den.

Hasi da Leurtzako denboraldia

Garai honetan nabaritzen da jendearen mugimendua Leurtza aldera, batez ere eguraldi polita egiten duen asteburuetan. Orain arte uda giroko asteburu batzuk izan ditugu eta auto eta motor andana mugitzen hasi da.

Honezkero aukeratuak dira aisi eremurako zaintzaileak ere, eta aurten urroztarrari tokatzen zaio lanpostu luzea eta Beintza-Labaiendarrari motza. lazko bi emakume berak izan dira aukeratuak, dagoeneko es-

perientzia handia hartu dutenak.

Enplegu sozialerako langilea

Bertze urte batez, langileak kontratatuko dira Enplegu Zerbitzuak ematen duen laguntzari esker, herrian hainbat lan egin ahal izateko. Aurten ere hiru hilabeterako hartuko dira hiru lagun, ofizil bat eta bi peoi.

Ekain aldera hasi eta irail erdi aldera arte ariko dira lanean. Adi interesa dutenak!

ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ
1986tik ez da hauteskundeetako zerrenda inoiz gelditu hutsik.



edretoi finak
albornoak
edretoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

DONAMARIA

KIROLA → GAZTEEK ANTOLATUTA

Herriko mendietara ateraldia eginen da larunbat honetan

Mendi itzuliaren ondotik bazkaria eginen da

TTIPI-TTAPA

Donamariako mendietara ibilaldia antolatu dute herriko gazte batzuek eta eguna ere erabaki dute: larunbat honetan, apirilak 30, izanen da. Goizean goiz, 06:30ean, herriko plazatik atera eta harrobetik goiti Ibaite, Labiaga, Uztalakorta, Garmendiko gaina eta Baztanibarren barna pasatuko dira. Gero, berriz ere plazara jaitsiko dira. Horrela emanen die bukaera itzulari.

BAZKARIA

Ibilaldiaren ondotik Herriko Ostatuan bazkaria eginen da. Bazkaltzera joan nahi duenak apirilaren 28a, ortzeguna, baino lehen izena eman beharko du ostatura joanez edo deituta.



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI

Buruhaundi eta erraldoiak

15 lagun hasi ziren artisautza ikastaroa egiten otsailean eta dagoeneko akitu da. Ikastaroan, Ines eta Amaia irakasle izan direla, lau buruhaundi eta bi erraldoi egin dituzte. Hauek bestetan aterako dituzte plazara hemendik aitzinera. Hala ere, bestak aliegatu baino lehen, plazara atera zituzten jendeak ikusi ahal izateko. Giro polita izan zen eta berandu eder bat ere eskaini zioten hurbildutako jendeari. Argazkian ikus ditzakegu egindako buruhaundi eta erraldoiez gain, ikastaroan parte hartu dutenak zein izan diren.

TURISMOA

On-line erreserba zentrala aurkeztu du Bertiz Partzuergo Turistikoak

TTIPI-TTAPA

2010ean hasitako lanaren ondotik, Bertiz Partzuergo Turistikoak eta Hiruak Bat bere landetxe elkarteak Baztan-Bidasoko alojamendu zentrala paratu dute martxan. Bi dominioekin egiten dute egun lan: www.baztan-bidasoa.com eta www.consociobertiz.org. Bilaketa sistemaren baitan, landetxe zentrala garatu da elkartearen web orrian. Eta partzuergoaren zentralak landetxe, apartamentu, hotel, kanpin eta aterpeen zerbitzua eskaintzen du. Aldi berean, alojamenduak libre dauden ere kontsulta daiteke, eta erreserba egin ere bai. Batzuetan, ordainketa eta erreserba osoa ere egiten ahal da. Zonalde edo herriaren arabera egin daiteke bilaketa, baina bilaketa zorroztogoa ere egin daiteke, alojamendu mota eta zerbitzuak zehaztuta. Zentrala otsailetik dago martxan, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren marketing ikasle talde baten laguntzarekin egin da. Ikasle taldeak Google mundu txapelketa batean parte hartu du, benetako enpresa batentzat Google-eko iragarkietan diru kopuru jakin bat gastatuz, kasu honetan, Bertizkoa izan da aukeratu.

Eskalerak igotzea... ez da oztopol

Behetik

igogailu bereziak
auki bereziak...

Aforgo-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRIJAN

HONDAKINAK → BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA MENDIALDEAN

Urtetik urtera goiti doa birziklapen tasa

2008arekin alderatuta nabarmen egin du goiti bilketak

TTIPI-TTAPA

Orokorrean goiti egin du hondakin bilketak, eta datuek hala erakusten dute Baztan, Bortziriak eta Malerrekan. Aipatu, bertalde, joan den urtean sortu zute la Arano, Areso, Goizuetza, Larraun, Leitza eta Lekunberriko udalek Mendialdea Mankomunitatea eta beraz, datuak 2010ekoak direla.

PAPERA ETA KARTOIA

Baztan, Bortziriak eta Malerrekan, iaz 2008an baino paper eta kartoi gehiago bildu zen. Guztira 1.012.900 kilo. Mendialdea Mankomunitateko sei herrietan

227.720 kilo bildu ziren.

BEIRA

2010ean beiraren bilketa 892.705 kiloko izan zen Baztan, Bortziriak eta Malerrekan eta Mendialdean 261.510ekoa.

ENBASEAK

Enbaseen bilketak ere goiti egin du. Bortziritan igo da gehien bilketa hori, 2008ko 116.753 kilotatik 124.452ra. Mendialdeko sei herrietan 54.550 kilo bildu zen.

HONDAKIN BEREZIAK

Hondakin berezien kopuruak goiti egin du Baztan-Bidasoaldean (14.201 kilo) eta Mendialdean tresna elektriko eta elektronikoetan 8.120 kilo bildu ziren 2010ean.

SILOETAKO PLASTIKOAK

Baztanen bildutako si-

loetako plastikoaren kopuruak goiti egin du. Baina nabarmenezkoa da Malerrekan eta bereziki Bortziritan eman duen beherakada. Mendialdean, aldiz, ez da honelako bilketarik egin.

NEURRI HANDIKOAK

Neurri handiko trasteak Emauseko Trapezoek biltzen dituzte eta 393.850 kilo bildu dira Baztan-Bidasoaldean. Mendialdean, berriz, 19.440 kilo bildu dira.

PILAK

Pilen bilketak ere goiti egin du, baina ez dago alde nabarmenik 2008tik joan den urteko datuetara.

ORGANIKOAK

Iaz 1.842.930 kilo organiko bildu ziren Mendialdean eta Bortziritan 41.916 kilo konpost.

SALDIAS

INDEPENDENTEAK

1. Jacinto Dominguez San Nazario.
2. Jose Luis Erasun Erasun.
3. Julian Erasun Erasun.
4. Miguel Mariezkurrena Baleztena.
5. Francisco Javier Mitxeo Mariezkurrena.

ERATSUN

LATARGI

1. Rakel Telletxea Santesteban.
2. Fco M^a Retegi Descarga.
3. Patxi Mariezkurrena Descarga.
4. Juan Antonio Telletxea Santesteban.
5. Luis M^a Retegi Telletxea.

OIZ

ALKARTASUNA

1. Jabier Ariztegi Juarena.
2. Jose M^a Lataza Apeztegia.
3. Luis Maria Mindegia Mitxeo.
4. Andres Oteiza Lizasoain.
5. Alberto San Miguel Mindegia.

2008 ETA 2010EKO DATUAK BAZTAN-BIDASOALDEAN

PAPERA ETA KARTOIA

	2008	2010
Baztan	306.082	330.329
Bortziriak	556.079	472.557
Malerreka	207.799	210.014

ENBASEAK

	2008	2010
Baztan	85.657	112.088
Bortziriak	116.753	124.452
Malerreka	56.230	59.520

BEIRA

	2008	2010
Baztan	288.390	320.188
Bortziriak	363.797	374.397
Malerreka	206.246	198.120

HONDAKIN BEREZIAK

	2008	2010
Baztan	3.347	5.113
Bortziriak	5.223	5.898
Malerreka	3.005	3.190

NEURRI HAUNDIKO TRASTEAK

	2008	2010
Baztan	100.655	126.200
Bortziriak	177.051	197.886
Malerreka	60.306	69.794

SILOETAKO PLASTIKOAK

	2008	2010
Baztan	25.292	28.722
Bortziriak	3.830	400
Malerreka	22.388	13.178

PILAK

	2008	2010
Baztan	505	660
Bortziriak	1.180	1.192
Malerreka	190	229

MENDIALDEKO 2010EKO DATUAK *

ORGANIKOAK	1.842.930 kilo
ENBASEAK	54.550 kilo
PAPERA ETA KARTOIA	227.720 kilo
BEIRA	261.510 kilo
NEURRI HANDIKOAK	19.440 kilo
ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK	8.120 kilo
PILAK	60 kilo

*Mendialdeko datuak Arano, Areso, Goizuetza, Leitza, Lekunberri eta Larraungo herrietakoak dira.

F. LANCHAS
Akutxidorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6AN ETA 7AN

Asto lasterketa eginen da Txino jaietako larunbatean

Gazte Asanbladak bi egunetan antolatu ditu ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Herriko fiesten artean gero eta sona haundiagoa hartzen ari diren Txino auzoko Jaiak maiatzaren 6an eta 7an ospatuko dira. Beti bezala, egitarau ederra osatu du Gazte Asanbladak, Udalaren, Umore Ona Elkartearen eta Zubi-Ondo eta Gordea tabernen laguntzarekin.

Ostiralean, maiatzak 6, 20:00etan bertso musikatuak izanen dira Zubi-Ondo tabernan, Unai Gaztelumendi eta Julen

Zelaieta bertsolariekin eta Dani Narbarte trikitilariarekin. Eta 21:00etan mus txapelketan eginen da Zubi-Ondon.

Egunik haundiena, halare, larunbatekoa izanen da, maiatzaren 7koa. 11:00etan txupinazoa edo itxaferoa botako da eta ondoren buruhandiak eta trikitilariak kalean ibiliko dira. 11:45ean Umore Ona Dantza Taldeak bere saioa eskainiko du eta 12:30ean asto lasterketa eginen da: Txino auzoa eta herriaren arteko lehia izanen da.

14:30ean bazkaria izanen da eta joan nahi duenak Amaia kafe-tegian erosi beharko ditu txartelak. 18:00etan Bide Batez berbena taldearekin dantzaldia izanen da eta gauean kontzertuak Garajejan. Besteak beste, Bad Sound System taldeak joko du.

Garraioaren planarekin kritiko

Garraio zerbitzua hobetzeko, Nafarroako Gobernuak egin duen Bidaiarien Herriarteko Garraioaren Plan Integralari alegazioak aurkeztu dizkio Udalak. Udalaren irudiko, garraio pribatuarekiko dagoen menpekotasuna murrizteko garraio publikoa bultzatu beharko litzateke. Nafarroan gaur egun dagoen garraio publikoak «ez ditu gehiengoaren beha-



ARGAZKIA: ELENA GARTZIA

Futbiton ere ederki

Xumar Bakeroren aginduetara, futbiton ere gustura aritzen dira herriko gazte-txoak. Etxetik kanpo ere jokatzeko aukera izan dute, eta apirilaren 3an, adibidez, Irunen izan ziren bi taldeak, eta biek irabazi egin zuten. Añorgan ere ibili dira Umore Ona Txiki Futbito Taldea osatzen duten 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona Abesbatza Luberrirekin kantuan

Burubelarri lanean dabil Umore Ona Abesbatza. Apirilaren 10ean Donostiako Luberrri abesbatzarekin elkartrukea egin eta donostiarrak emanaldia eskaini zuten Goizuetan. 12 kantu abestu zituzten beraiek bakarrik, gero beste hiru Umore Onarekin eta bukatzeko bi koruetako 80 lagunek elkarrekin bazkaldu zuten Elkartean. Ekainean, berriz, Ereñozu eta Hernaniko beste bi abesbatzekin Santanderren kantatuko du Umore Onak, Arraun Ligako denboraldiaren aurkezpenaren harira. Eta ekainaren 25ean, Luberrirekin egindako trukea itzuli eta Antiguon kantatuko du. Sanjuanetako eta Amabirjinetako aurrekin osatuko du aurtengo denboraldia.

BILDU



Pablo
MIRANDA
TABERNA

2. Daniel Oiartzabal Larraburu. 3. Josu Narbarte Etxegia. 4. Alaitz Eskudero Bergara. 5. Jabier Otaño Jaunarena. 6. Izaskun Bakero Eskudero. 7. M^a Pilar Apezetxea Elizalde.

rrak betetzen eta gehienek norbere ibilgailua hartu behar izaten dute», dio Udalak. Garraioaren Plan Integralak arazo horri aurre egiteko balio beharko lukeelakoan dago Udala, eta bere ustez, «zenbait hobekuntza planteatzen ditu, baina arazoa errotik konpontzeko proposamenik gabe». Gaia Udalen parte hartzerik gabe landu izana ere kritikatu du.

Bost gunetan banatu da Nafarroa eta Goizueta-Leitza zerbitzua Altsasuko guneari dagokio. Horren harira, ordutegia herritarren beharretara egokitu behar-

ko litzatekeela adierazi du, «gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen direlako herrietan eta gestioak egiteko batetik bestera mugitu behar izaten delako».

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko

DOKUMENTU-POLTSA
bat izanien duzu apart!

proiektu zerbukia 15.996

944 000000
944 000000
944 000000
944 000000
944 000000

TTIPI-TTAPA

ATZERA BEGIRA → ERAIKIN ERLIJIOSOAK

Ezkurrako ermita herriarena ote da?

Udal artxiboko datuak aztertu dira

Fernando ETXEBERRIA

Erantzun positibo bat eman aurretik gogorazi nahiko nuke botere politikoa duen norbaitek elizaren ideien aurka jotzen duenean, elizak beti argudio berdinak erabiltzen dituela. Etika eta moralaren aurkakoak izaten direla esaten dute eta horregatik euren misioa omen da hori salatzea. Abortua eta eskolaren laikotasunaren kasuan bezala.

Gai konkretu honetan, egia da Artzapezpikutzak ermita bere jabetza bezala inskribatu duela eta horregatik juridikoki euren irizten dutela. Baina moralki begiratu, dokumentu hauetan herriarena dela aipatzen da. Edonork ditu irakurgai udal artxiboan.

Santa Kruz ermitari dagokion lehen data ofiziala 1721eko uztailaren 19ari dagokio. Bisitadore generalak hauxe eskatu zuen: «herri honetako alkateari eta zinegotziei eskatzen diet Santa Kruz ermita konpondu eta moldatu dezatela. Ia erortzeaz dago eta erabat hondatzeko puntu-

an... Lanak egin ditzatela hemendik sei hila-betetara... denbora hori pasa eta lanak ez bada egin ermita bota eta deusezta dezatela».

Erantzun positiborik izan ez eta 1725ean goztaina Udalera zuzendu zen, sei urte pasatu zirela ermitako lanak egiteko agindu zenetik eta ia eraitsita zegoela, bertan mezarik ematerik ez zegoela esan zuten. Horregatik eskatu zuen herri sarreran Leitza eta Goizuetarako bidean ermita berri bat egiteko. «Bere gastu guztiak beren gain hartu dituzte limosnak eman dituzten herritarrek eta ongileek. Horregatik ermita honen ez du errentarik. Pasatzen den poltsako diruarekin ere ez da lanparentzat oliorik erosteko iristen, lehendik elizkoiek emandakoarekin hornitzen baitzen».

Azkenik, ermita zaharra zegoen lekuan harritzko gurutze bat jartzeko eskatzen zuen. Baztanea Bordan oraindik mantentzen dena.

1727an alkatea goztaitegira zuzendu zen obrak bukatu zituztela esanez. Apirilaren 26an Juan Fermin de Villanuevak, elizaren ordezkari gisa, elizkizun handi batekin bedekatzeko eskatu zuen, edozein apaizek bertan meza emateko baimeana eman. Hortik dagokion ermita berriaren lur eremuak eta lanak Udalak eta herritar elizkoiek emandako diruarekin erosi eta egin zirela.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Santa Kruz ermita.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Urrezko Ezteiak

Maiatzaren 8an 13:30ean Ignacio Arruabarrenak eta Atanasia Elizalde euren Urrezko Ezteiak ospatuko dituzte. Atanasia Ezkurran jaio zen 1939an Komentzanean etxean. Oso gazterik Gipuzkoara joan zen lanera eta Orion Ignaciorekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Bere txikitako oroitzapenak berreskuratzeko herrira bueltatuko da bere ezkontzaren 50. urteurrena ospatzeko. Familia guztia Barranka ostuan elkartuko da elizkizunaren ondotik. Zorionak.

Ez dago ermitaren konpontze datu berriarik 2010. urteera arte, Juanitak egindako lanari esker. Aste batzuetako lana eskaini baitzion ermita konpondu eta garbitzeari. Lurrari garbitze sakon bat eginez, paretak pintatuz, bankuak, baranda eta eskailerak bernizatuz.

Bere familiaren laguntza eduki zuen, kanpikaldea pintatzeko gehienbat. Dohainik egin duen lan bikaina eta eskuzabala izan da, bere merituz guztiakin balioetsi behar dena. Ekonomikoki eurentzat eduki duen kostu partikularra kontuan hartuz.

TURISMOA

Larunbat honetan ospatuko da Natur Bideen Eguna

TTIPI-TTAPA

Beste urte batez, Natur Bideen Eguna egingen da aurten ere Plazaolan. Larunbat honetan, apirilak 30, izanen da eta horren harira, Leitza, Larraun eta Lekunberri arteko ibilbideak antolatu dira. 4, 15 eta 20 kilometroko ibilbideak prestatu ditu Plazaola Partzuergo Turistikoak. Lau kilometroko ibilbidea, haurrentzako planteatutakoa, Kintarranbuelatik Leitza-ko plazara artekoa da. Lekunberriko geltokitik Leitza-ko plazara bitartekoa da 15 kilometroko ibilbidea, Uitziko tunelaren hegoaldean pasatzen dena. 20 kilometroko ibilbideari Leitza-ko geltokian emanen zaio hasiera, Uitziko tuneleko hego parteraino joan da eta bertatik Leitza-ko plazara. Nahi duenak tren txutxuan ibiltzeko aukera ere izango du, Uitziko tunelaren hegoaldean hegoaldean Leitza-ko plazara joan etorrian ibiliko baita. Bi geltokietan izango du trenera igotzeko aukera larunbatean Plazaolara hurbiltzen denak.

IDOIA

1. Julian Gogorza Jaurregi.
2. Pedro Zestau Juantorena.
3. Jesus Mariezkurrena Tellexea.
4. Miguel M^a Lasarte Mariezkurrena.
5. Martin Gastearena Balda.

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14
www.beintzakostatu.com
www.ostatu.com
11700 BEINTZA (ARAKO)
ORBELA

LEITZA

OSPAKIZUNAK → AURTEN HIRUGARREN ALDIA

Herriko jubilatuz guztien eguna ospatuko da igande honetan

85 urte bete eta Urrezko Ezteiak egin dituztenak omenduko dira

TIPI-TTAPA

Aurten hirugarren aldiz, jubilatuen eguna antolatatu du Jubilatuen Elkarteak. Igande honetan ospatuko da, maiatzak 1. 11:00etan Meza Nagusia izanen da aurten hildako kideen alde eta eguerdian, 13:30 aldera, bazkaria egingen dute Landa jatxetean.

Bazkalondoren, omenaldien txanda izanen da. Aurten 85 urte bete edo beteko dituztenei eta Urrezko Ezteiak ospatuko dituztenei oroigarria emanen zaie. 85 urtekoak sei dira: Demetrio Salbarredi Garziarena, Joakina Azpiroz Arnedo, Rufino Agirre Gogorza, Hilaria Etxeberria Irigoien, Katalina Billabona Saralegi eta Rosario Aranburu Elduaien. Urrezko Ezteiak beteko dituztenak Antxikoneko Agustín eta M^a Jesus dira.

Omenaldien ondoren, musika izanen da.

Pestetako programak Interneten

Pestetako programa guztiak eskura jarri ditu ALKEk bere webgunean. Ia 80 urtetako programak bildu dira, eta zaharrena, 1917koa da. Ge-

rra aurreko beste batzuk ere eskura daude eta 40. hamarkadatik gaur egunera bitarteko guztiak. Programekin batera Plazaola aldizkari guztiak ere zintzilikatu ditu www.leitzakultura.net-en.

Leire Erbiti kantuan

Apirilaren 17an jokatzen Nafarroako Haur Kantari Jaialdiaren azken saioa Iruñeko Gaiarre antzokian, aurretik nabarmendutako en artean. Eta han izan zen Leire Erbiti. Kantuan ederkimoldatzen dela erakutsi zuen, ttikien mailan Euskal Herriko sail-



ARGAZKIA: HITZA

Zazpi jasoaldi 150 kiloko harri kubikoari

Bere pisuaren bikoitza duen harria, 150 kilokoa, zazpi aldiz jaso zuen Josetxo Urrutiak apirilaren 16an, bost minutuko denboran. Eta horrelaxe egin zuen marka. Jasoaldi garbiak egin zituen Urrutiak, eta lan aipagarria egin zuen. Izan ere, hasierako helburua harria sei aldiz jasotzea zen, eta azkenean bat gehiago ere lortu zuen. Federazioak marka ontzat emateko, dopin kontrola ere egin zioten.

katzea lortu baitzuen. Hala, ekainaren 11n Hazparren jokatuko den txapelketan izanen da.

Aurrerako pilotariak

Nafarroako 24. Kirol Jolasen barne, pilota txapelkete irabazi dute Aurrerako Anartz Olano are-soarrak eta Xabier Jaurarena leitzarrak. Jubelnil mailan lortu dute tx-


pela, 22-17 Oberenako Jaurena eta Cordoni irabazita. Bigarren mailako infantiletan Aurrerako Eskudero eta Erasok 18-4 irabazi diete San Migueleko Anduaga eta Landari.

Perurena omendua

Iñaki Perurenak euskara eta ikastolen alde egin duen lana eskertze-

ko omenaldia eskaini zioten apirilaren 9an Nafarroako ikastolek. Ikastoletako 15 ordezkari hurbildu ziren Peru HARRIA eta Izaskun Arratibel Nafarroako Ikastolen Elkarreko lehendakariak Nafarroa Oinezeko testigua daukan koadro bat eman zion Perurenari, euskal kulturarekin duen konpromisoa eskertzeko.

BILDU



Oier EIZMENDI ASTIBIA

2. Aitor Etxarri Pellejero. 3. M. Josune Marzol Ormazabal. 4. Miren Andone Salbarredi Azurmendi. 5. Onintza Bengoetxea Zabaleta. 6. Irati Barandiaran Olaetxea. 7. Arantxa Iparragirre Baleztena. 8. Esteban Uitzu Baztarrika. 9. Jose Antonio Olaetxea Iriarte. 10. J. Fermin Lizarraga Lazkano. 11. J. Fernando Garcia Daudet.

DNE/NEE



Silvestre ZUBITUR GOÑI

2. Pedro Urkiola Zestau. 3. Lorenzo Zubitur Villabona. 4. Tomas Manuel Fernandez Fernandez. 5. Francisco Zubitur Zestau. 6. Sonia Kaloyanova Todeva. 7. Ramon Troyano Perez. 8. Juan M^a Zubitur Villabona. 9. Maria Basulescu. 10. Miguel Angel Zubitur Goñi. 11. M^a Pilar Cripres Aznar.

ITZAIRE



Mikel AZPIROZ HERNANDORENA

2. Miren Intxaurren Arraras. 3. Ibon Azpiroz Sosa. 4. David Barriola Eugi. 5. Igor Aldaia Zabaleta. 6. Maria Arretxe Agirre. 7. Nerea Astibia Makatzaga. 8. Angel Maria Juantorena Baleztena. 9. Maria Luisa Astibia Olano. 10. Garazi Arizmendi Gaztañaga. 11. Junkal Otxotorena Sagastibeltza.

UPN



Jose Migel GOIKOETXEA ZABALETA

2. Fermin Azpiroz Martinikorena. 3. Eradio Ezpeleta Iturralde. 4. M^a Luisa Martin Ortiz. 5. M^a Teresa Artola Etxeberria. 6. Javier Bengoa Muñoz. 7. M^a Paula Estremera Rodriguez. 8. Felix Gerardo Caballero Azpiroz. 9. Antonio Miguel Galera Gutierrez. 10. J. Jose Zestau. 11. Roberto Sukunza Zabaleta.

HEZKUNTZA → LAGUNTZAK

Udalak dirulaguntzen deialdia zabaldu du

Hezkuntza eta heziketari lotuak dira

Juana Mari SAIZAR

Urtero bezala, hezkuntza eta heziketako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udalak.

16 urtetik beherakoentzat dira eta beharrezkoa den dokumentazioa udaletxera eraman behar da eskerra egiteko. Apirilaren 26tik maiatzaren 8ra arteko epea izanen dute herritarrek dirulaguntza eskatzeko.

Kirol jolasak

Olano aresoarrak eta Jaunarena leitzarrak irabazi dute pilotan Nafarroako Kirol Jolasetan pilotako finala. Obere-na klubaren aurka jokatuta zuten, eta 22-17 irabazi.

ARESO ERAIKIZ



Ur ALGUERO CHIVITE

2. Jokin Barandain Telletxea. 3. Uxue Goi-koetxea Saizar. 4. Iker Barandain Caballero. 5. Mikel Baraibar Garmendia. 6. Xabier Domingo Zubillaga Uranga. 7. Axun Arratibel Onsalo.

Bestalde, Anartz Olano Antiguoko lau t'erdiko torneoan parte hartzen ari da. Hasiera ona eman dio txapelketari, lehen partida irabazi egin baitu.



ARGAZKIA: NAZABAL ESCOLA

Eskolako umeak Tolosan

Apirilaren 15ean herriko eskolako haurrak Tolosara egin zuten txangoa. Tolosako Nazioarteko Txontxongilo Zentrora (TOPIC) egin zuten bisita. Txontxongi-oen tailerra bisitatu eta emanaldi bat ikusteko aukera izan zuten.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Aingeru eta Txomin nagusi mus txapelketan

Pake Toki elkarteko mus txapelketaren finala Aingeru Etxaide eta Txomin Zubillagak irabazi dute. Txapelkunordeak Kontxi eta Maxe gelditu dira.

616 513 497
Pitti
ESKABAZIOAK

**GARRAIOAK,
ESKABAZIOAK,
KONTENEDOREEN
ZERBITZUAK**

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Amezitia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BAZTAN

GIZARTEA → GIZARTE ZERBITZUETARAKO

Elizondoko Medikuaren Etxea izan zenak erabilera berriak izanen ditu

Gizarte zerbitzuei eta erakundeei utzi die Udalak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Medikua-ren etxea izan zenak Bidelagun, Cocemfe eta Anfas elkarteak eta gida baimena ateratzeko zerbitzuak eskainiko ditu. Hala erabaki zuen Udalak apirilaren 11ko plenoan. Etxearen zati bat Osasun Sailarentzat izanen da azterketa psikoteknikoak eta gida baimenari dagozkion bertze tramiteak egiteko. Bertze zatia Anfas, Bidelagun eta Cocemfe elkarteentzat izanen da.

Medikuaren Etxea orain gutti arte 0-3 urte artekoen haur eskola izan zen. Goitik beheiti eraberritua eta egokituia izan da. Etxe barruko banaketa aldatu, oztopo arkitektonikoak kendu eta sarrera egokitu dira.

KASINO ELKARTEA

Elizondoko Kasino elkarteak duen eraikinaren eraisketa ere ezta-

baidatu zen plenoan. Udal garajearen orain Kasinoren sukaldea dago. Eraikina botaz gero, udaletxeko sarrera egokitu litzateke Pedro Axular aparkalekutik. NaBaiko 6 zinegotziek etxea botatzearen alde bozkatu zuten eta UPN-ko 4k aurka. Halere, erabakia hurrengo legealdian hartu beharko da.

Amaiurko errota zabalik

Amaiurko errota berriz zabaldu ditu atak. Astelehenetik ortzalerara taldeentzako bisitak eta tailerrak eskainiko ditu eta asteburu eta jai egunetan bisita gidatuak eta talo das-taketak.

Baratzeko mamu tailerra Arizkun

Museo Etnografikoaren Lagunen Elkartearen antolatuta, maiatzaren 14an, larunbatarekin, Baratzeko mamu tailerra egingen da Arizkun. 10:30etik 13:30era izanen da eta dohainik.

Interesatuak Arizkunenea Kultur Etxean eman beharko dute izena.



ARGAZKIAK: KORRIKA

Korrika jendetsua


Jende aunitz atera zen apirilaren 11n euskararen alde lasterka egitera. Korrikaren lekukoa esku batetik bertzerara ibili zen: Berroetako herria, Baztan Kirol Elkarte, Erlategi, Txaruta Pilota Elkarte eta Mendigoizaleak, Anizko herria, herrietako eskolak, Institutuko Guraso Elkarte, Udala, Fantxike, Gaztetxea eta Askatasuna, Arizkongo Elkartasuna elkarte eta Dolaetxea, Arizkongo gazteak eta arizkundarrak, Amaiurko herria, Xorroxin eta Xaloe, Erratzuko Guraso Elkarte eta Etxelebertz elkarte, Erratzuko gazteak, Saharaztan, Sasoia jubilatuen elkarte, Anzabal agentzia eta Aroz berri, Elizondoko lanbide eskolako irakasle eta ikasleak, Munarriz, Baztan Ikastola eta Guraso Elkarte, Elizondoko herria, Baztandarren Biltzarra, Gartzaingo gazteak eta herria, Iñezture Elkarte, Arkupe Goxotegia, Iruritako herria eta gazteak, Iruritako Guraso Elkarte eta Laxoa elkarte, Aranabia eta Gure Kaiola elkarte, Arraiozko gazteak eta Guraso Elkarte, Arraiozko herria eta Arizti elkarte, Lindutx, Kan-kan Guraso Elkarte, Gaztelume Elkarteak eta Oronozko herria.



ARGAZKIA: OIANKO GARDE

BOE ailegatu da

Udalak Euskararen Ordenantzak onartu dituela jakinarazteko, ekitaldia antolatu zuen Baztango Euskalgintzak apirilaren 9an. Fanfarrearen musikaz lagundurik, Euskararen Ordenantzak irudikatzen dituen BEO superheroia Elizondoko karriketan ibili zen bere etorreraren berri emanez eta eskuorri informatiboak banatzen. Urte-tako lanaren ondotik, Euskalgintzak bereziki pozgarritzat jo du Ordenantza hauek Udalean onartu izana, udal administrazioaren barne-erabileran, herritarrekiko harremanetan eta udalerraren gizarte-bizitzan ere, euskararen erabilera arautu eta normalizatzeko aurrerapausu handia baita. Halere, lana ez da oraindik akitu, hurrengo urratsa ordenantzak martxan jartzea izanen baita, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta baztandar guztien laguntzaz egin beharrekoa.



BAZTAN

KIROLA → ERREGIONALEN KATEGORIA UTZIKO DU

Preferenteen mailara igotzea lortu du Baztan Futbol Taldeak

Denboraldi honetan 30 partidatik 22 irabazi ditu

TTIPI-TTAPA

Aukera ez du alferrik galdu Baztan Futbol Tal-

deak eta horrenbertzez, erregionaleko lehendabiziko maila utzi eta preferenteen kategorian ariko da heldu den denboraldian.

Mailaz igo ala ez, partida erabakiorra apirilaren 16an jokatu zuen Iruñeko San Jorgeren



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Baztan Futbol Taldeko jokalariek kontent, igoera ziurtatu ondotik.

kontra Uhartan eta Josema Osacarren mutilek ez zuten hutsik egin. Saikapen nagusian San Jorgeri puntu bakarre-

ko alde aterata, Nafarroako prefenteen mailara bueltatzea lortu du.

Denboraldi ona osatu dute baztandarrek.

Izan ere, jokatu dituzten 30 partidetatik 22 irabazi egin dituzte, bortz berdindu eta hiru galdu.



BILDU

Garbiñe ELIZEGI NARBARTE

- Mikel Ortega Arraztoa.
- Santi Esarte Muniain.
- Maitane Maritorea Azkarate.
- Jon Elizetxe Bidegarai.
- Maite Oteiza Apezetxea.
- Jokin Ramirez Etxandi.
- Rakel Goñi Lakar.
- Gorka Urroz Goikoetxea.
- Mirentxu Lournagarai Mihura.
- Mariano Iribarren Irigoien.
- Nerea Altuart Zaldaín.
- Iker Frias Iturria.



EZKERRA

Florentino GOÑI TELLETXEA

- Iñigo Iturralde Elizetxe.
- Beñardo Amiano Magirena.
- Elena Arretxea Mitxelena.
- Resu Elizagoien Etxegarai.
- Fermin Barazabal Irigoien.
- Guillermo Etxenike Iñárrrea.
- Unai Apeztegia Petrirena.
- Lurdes Oharriz Martikorena.
- Isabel Mikelareana Domec.
- Jabier Iturralde Etxeberria.
- Maite Goñi Otxandorena.
- Mila Amiano Magirena.



NABAI 2011

Patxi IRIARTE ZELAIETA

- Maite Iturre Llano.
- Eduarne Goñi Otxandorena.
- Carlos Garaikoetxea Etxenike.
- Lander Santamaria Alcocer.
- Kiko Sastrustegi Zugarramurdi.
- Paula Kasares Corrales.
- Alejandro Martín Ibarra.
- Alicia Aleman Arrastio.
- Mª Teresa Fagoaga Rekalde.
- Ibon Leitzua Jubera.
- Irene Hualde Zabaleta.
- Martin Garde Sahara.



PSOE

Luis ROLDAN ASTIZ

- Jose Antonio Larroque Antzizar.
- Izaskun Irisarri Martikorena.
- Mª Josefa Pagazaurtundua Idiart.
- Nestor Arturo Charanchi Saavedra.
- Beatriz Etxeberria Valcarlos.
- Juan Luis Perez Francesena.
- Fco Javier Del Castillo Diaz.
- Mª Puy Sainz Rodrigo.
- Maria Villar Alava Martinez.
- Maria Arizmendi Goñi.
- Ramon Esteban Gaztelu Otxandorena.
- Martin Jose Zabalza Arregi.



UPN

Begoña SANZBERRO ITURRIRIA

- Mª Carmen Iribarren Iribarren.
- Mª Isabel Olabe Ballarena.
- Leopoldo Jaen Sobrino.
- Juan Jose Etxeberria Azkarraga.
- Jose Mª Garmendia Arizmendi.
- Mª Isabel Bidart Santxotena.
- Ignacio Agerrea Almenar.
- Francisco Iribarren Arretxea.
- Begoña Goñi Mitxelena.
- Antonio Bengotxea Iturriria.
- Mª Carmen Irigoien Sarraitea.
- Rosa Mª Irungarai Meoki.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardurarantz, zure igogailu instalatzen dizugu

BAZTAN

BATZAR NAGUSIAK → ALKATEEN OHARRA

Herrietako alkateek ez dutela talde politikorik ordezkatzeko adierazi dute

Udalak ez duela beraien lan egiteko gogoia eskertu diote

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 1ean izandako Batzar Nagusiaren ondorioz Diario de Noticias egunkarian argitaratutako artukuluaren dela egia erraten uste dute Amairu, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Elbete, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Iurrita, Lekaroz eta Zigako alkateek, baita Baztangoi-za eta Erberheako junteroek ere. Beraiek sinatu eta TTIPI-TTAPAra igorritako idatziak dioenez, «lehenik eta behin, garbi geldi daiera herrietako alkateek ez dugula talde politikorik ordezkatzeko eta ezker abertzalea ez dagoela Batzar Nagusian. Beraz, ezker

abertzaleak ez du deus proposatu, alkate talde batek egin zuen proposamena azken Batzar Nagusian». Alde horretatik, alkateek ez zuten «inondik inora ere, legea ez betetzea proposatu». Beraien proposamenaren baztanen egiten diren herri lanetan bertako enpresa guztiei lehentasuna eta aukera berdina ematea izan zela diote, «enpresa horiek dituzten lanpostuak mantentzeko, beti ere legalitatearen barnean».

Artikulu horretan aipatutakoa benetan garrantzitsuak diren gaiak ez aipatzeko «estrategia» bat dela uste dute idatzia sinatzen duten alkate eta junteroek, hala nola, Oharrizko harrobia. «Herri lurren kudeaketa Batzar Nagusiko kompetentzia dela atzenduta eta bere ginetik pasatuta, Udalak harrobiaren



ARGAZKIA: LEGARRA

Basaburua nagusi Nafarroako Herri Kirol Jolasetan kadeteetan

Nafarroako Herri Kirol Jolasetako finala jokatu zen Berroetan apirilaren 17an eta kadeteen mailan, Basaburua taldeak irabazi zuen, bai proba konbinatuan, baita sokatiran ere. Haur mailan, berriz, bigarren postua eskuratu zuen Basaburuak eta sokatiran laugarren gelditu zen.

gainen erabakia hartu du. Hala ere, Batzar Nagusiak Baztango alkatearen erabakia bertan behera utzi du eta komisi- bat eratu du gaia behar den bezala aztertzeko», diote. Artikuluaren idaztea Batzar Nagusiko kide ere denez, «informazioa manipulatzeko bere partiduaren mesederako eta bere helburu bakarra herrietako alkateak mintzea eta jendea itzintzean lortsaraztea» dela uste dute. Bertze aldetik, Arraiozko alkateari ere elkartasuna adierazi diote: «Batzar Nagusian errandakoa, agian, kontestutik kanpo gelditu zen, baina baztandar anitzen burutan dago, baita sinatzaileen artean ere, eta horrexegatik, bat

egiten dugu berekin».

Euren irudiko, «oraingo Udalak ez du eskertu herrietako alkateen lan egiteko gogoia eta borondate ona, eta beti gure kontra jarri dira elkarlanean aritu beharrean».

EZKER ABERTZALEAK ERE ERANTZUNA

Ezker Abertzaleak ere gogor erantzun dio Batzar Nagusiaz Diario de Noticiasen «idatzitako gezur eta faltsukeriei». Ezker Abertzaleak Batzar Nagusietan duen ordezkari bakarra azken udal hauteskundeetan hartutako bi zinegotziak direla diote, «baina alderdien lege antidemokrati-koagatik hauek ezin izan dute beren kargua hartu». Mozioa aurkeztu zu-

ten Baztango alkateen eta Ezker Abertzalearen artean kazetariak egiten duen lotura «gezur hutsa» dela azpimarratu dute, «herrietako alkateen hautaketa ez da alderdi baten izenean egiten, herri bakoitzak batzarren bidez hautatzen ditu». N.P. kazetaria eta Diario de Noticiasen arduradunak ere salatu dituzte, «Ezker Abertzalearen lana zalantzan jartzeko helburu bakarrekin informazio manipulatuak eta alderdikoiak behin eta berriz eman eta babesteagatik». Bailaran gertatzen den guziaren gibeletik Ezker Abertzalea dela pentsatzeak «gure kontrako obsesio itsua bertzetik ez duela erakusten». gaineratu du.

Erosketa guztien finantzaketa 300€tik hasita 60. hilabetea arte %0ko interesarekin

erakusketa aldatzeagatik %40 eta %60 arteko deskontuak

H. LOPEZ

Santiago, 93 ELIZONDO | T. 948 452 126
www.honestolopez.com

UDALA → LEGEALDIAREN BUKAERAN

Udal politikan eginiko praktika egokien saria eskuratu du Udalak



Virginia Aleman alkateak hartu zuen saria.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eman dio saria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak udal politikan egindako praktika egokien sariak banatu ditu aurtur bigarren aldiz. Hain zuzen, sarituetako bat Baztango Udala izan da. Irungo Kunsthal Arte Plastikoa eta Diseinu Eskolarekin egindako lankidetzak hitzarmenagatik hartu du saria Udalak. Federazioak legealdiaren bukaeran ematen ditu sari hauek eta apirilaren 8an banatu zituen aurtengoak. Virginia Aleman alkateak hartu zuen saria Udalaren izenean.

Hiru akordio sinatu izan ditu Udalak Kunsthal zentroarekin, ikasle eta irakasleei kasu errealak eskaintzeko helburuarekin. Trukean, Baztango tokiekin lotutako proposamenak diseinatu izan dituzte. Urte hauetan hondakinen edukiontziei buruzko lanak egin dira, Haur Eskolaren paisaia landu eta bere nortasuna diseinatu, Elizondoko ikastetxeetarako bideak seinalizatu eta garatu, ariketa fisikoa lantzeko kanpainarako sinboloa edo marka sor-

Rural Kutxaren Líder Gordailua
www.ruralvia.com

Iritsi gailurrik altuenetara zure inbertsioarekin.

Inbertsioaren %30arentzat:
- %4,50eko urteko interes nominala 6 hilabeteko epean (%4,55 UTB).

Inbertsioaren %40arentzat:
- %4,50eko urteko interes nominala 12 hilabeteko epean (%4,50 UTB).

Inbertsioaren %30arentzat:
- %100 Eurostoxx 50 indizearen hilabeteko errendimenduen metaketarena, 36 hilabeteko epean*.

Kapitalaren %100 itzuliko da epemuga-datan

* Errendimendua kalkulatu da %100-ko gaitasunarekin. %100-ko gaitasunarekin errendimendua kalkulatu da %100-ko gaitasunarekin. Errendimendua kalkulatu da %100-ko gaitasunarekin. Errendimendua kalkulatu da %100-ko gaitasunarekin.

Errendimendua %0,25-eko murrizketaren 2to bitarteko balioa da.

URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → MENDIA

Argindarreko posteak garbitzen aritu dira

Herritarrek egurra profitatu ahal izanen dute

Koro eta Margari

Argindarren posteen bideak garbitzen aritu dira aste hauetan. Hariak hartzen duen lerroa urrundik ageri da. Herriatik edo Bentetako bidetik begiratuta sekulako sakasta ikusten da Urbiatik heldu eta Aina-ra guztia gurutzatzen. Bota dituzten zuhaitzak moztu eta pilatuta utzi dituzte. Herritarrek profitatzen ahal izateko.

Internet ikastaroak

Cederna-Garalur eta Sorginen Museoaren artean bi ikastaro antolatzen ari dira. Lehenengo Internet eta posta elektronikoa buruzkoa da, eta batez ere emakumeei zuzendua. Bertzea turismo marketinari buruzkoa da, gizarte sareak marketinean no-

la erabili ikastekoa. Izena eman nahi izanez gero, telefono edo e-mail bidez egin daiteke: 948 599223/948 599004/info@zugarramurdi.es.

Urdazubiko klaustroa zabalik

2011ren akabaila arte egonen dira zabalik Urdazubiko klaustroa eta monasterioa. Jaiegunetan egunero egonen da irekita, 11:00etatik 19:00etara eta gainerako egunetan asteazkenetik ortziratera 14:00etatik 19:00etara eta asteburuetan 11:00etatik 19:00etara.

Euskal Herriko pinturaren 50 urte erakusketa ere ikusgai izanen da aurten ere. Dagoneko 300 artelan baino gehiago pasatu dira Urdazubitik.

Monasterioko atea berriz irekitzearekin batera, herriaren eskaintza turistikoa aurkeztu dute: errota, bisita gidatuak herrian barna, leizeak eta erakusketa.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Korrika 2011

Euskalakari onak izanik, bertze behin ere hantxe egon ziren fin-fin herritar batzuk Korrikan parte hartzeko. Aldi huntan Txerxefruiten hartu zuten txanda, 958 kilometra, eta Senpere aldera eraman zuten lekukoa.

ZUGARRAMURDI

AKELARRE

1. Jesus Agerre Indaburu. 2. Lazaro Dainciart Iribarren. 3. Evaristo Mentaberri Mihura. 4. Jose Javier Zubillaga Camino. 5. Juan Miguel Ariztegi Etxenike.

Sorginak munduan

Sorginen Museoak langileak Zugarramurdi ezagutzera ematen ibili dira. Azken hilabete hauetan hainbat tokitako turismo erakusketa egonak dira: Valentzian, Donostian, Iruñean eta Miarritzen, bertzeak bertze.

URDAZUBI

AZKAR



Santiago
VILLARES
OTEGI

2. Juan Ignacio Arzoz Erreka. 3. Juan Jose Suhas Laurenzena. 4. Itziar Galarregi Blanco. 5. Iñaki Ariztia Urriaza. 6. Severo Galarregi Blanco. 7. Mattin Arrieta Tapia.

URTXUME



Andres
DIHARASSARRI
ORGANBIDE

2. Pedro Etxeberria Irigoien. 3. Silvia Suhas Bazterrika. 4. Daniel Elizalde Karrika. 5. Miguel Ariztia Etxeberria. 6. Martin Mitxelena Bertiz. 7. Jone Bonnemaison Bidart.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C • ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zurich Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alkatari
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

KIROLA → ERRUGBIA

Euskal Herriko errugbi xapelketa ospatuko da maiatzaren 28an Animaniako zelaian

Zazpi herrialdeetako errugbi taldeak hartuko dituen xapelketa antolatu dute

Joanes GARCIA

Aitzineko aleetan aurreratu bezala, heldu den maiatzaren 28an, errugbi maitaleentzako besta handia ospatuko da Animaniako zelaian. Sarako Izarra errugbi taldeak, Euskal Herriko zazpi probintziak batu-ko dituen lehen errugbi xapelketa antolatu du.

Zortzi ekipek haien parte-hartzea baieztatu dute: Bizkaitik Getxo, Arabatik Gaztedi (Gasteiz), Gipuzkoatik Hernani, Nafarroatik Baztan, Xiberutik Mendikotta, Baxe Nafarroatik Donapaupe, Lapurditik

Azkaine eta Sara antolatzaile bezala.

Antolatzaileek, egun osoko egitaraua aurkeztu dute. Goizean taldeak bi multzotan banatuak izanen dira. Arratsaldean, sailkatutakoek indarrak neurtuko dituzte eta lehia polit honen ondorioz, Euskal Herriko lehen xapelduna nor den ezagutuko dugu.

Iluntzean, afari handi bat emanen da eta gaua borobiltzeko Xutik taldea eta Balpores disko jartzailea izanen dira. Egun hortako irabazien parte handiena Integrazio Batzordearen alde izanen da.

Afarirako txartelak Herriko Etxeko edantegian eros daitezke.

Urrats Gaua

Urteak dira Herri Urrats bezperan Etxola Gaztetxeak kontzertu-



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Barandiaranen liburuaren aurkezpena

Joxe Miguel de Barandiaranen *Bosquejo etnografico de Sara* liburuaren euskarazko eta frantseseko itzulpenak aurkeztu zituzten joan den apirilaren 15ean Lurberri gelan. Urte aunitzetako lan kolektibo bat izan da. Laborde auzapezak, proiektua haren aitzindaria izan zen Aniotzbeherek abiatu zuela oroitarazi zuten eta haren ekipak segitu zuela. Herriko Etxeaz gain, Barandiaran fundazioaren eta Euskal Kultur Erakundearen partaideek hitza hartu zuten. Fundazioko kideak Barandiaranek Sararekiko zuen lotura handia azpimarratu zuen. EKEko lehendakaria den Pantxoa Etchegoienek maisu lan honen garrantzia azaldu zuen bai saratarrentzat baita Ipar Euskal Herriko edozein biztanlerentzat ere. Azkenik, Xabier Elozegi eta Pantxo Michelenarekin obra orraztu duen Erramun Bachocek, itzulpenekin ukan dituzten buruhausteak kondatu zituen. Adibidez, bertako euskarari eman diote lehentasuna batuera zko hitzak parentesi artean emanez. Liburua idazleen biltzarrean agertzekoa zen lehen aldikotz.

ak antolatzen dituela. Aurtengoan afitxa polita antolatu dute. Gauraldi honetan: Borrokan (Bera), MOPA (Okzitaniar Tolosa), Willis Drummond eta bukatzeko Dj Panda Valium vs Dj Mollo ariko dira.

Joko berri xapelketa

Apirilaren 9an Joko Berriko xapelketaren finalak jokatu ziren kiroldegian. Laugarren serie-

an Panpi Gorrosureta eta Pantxo Errandonea garaile izan ziren, 40-38 Imanol Ribot eta Joan Agestaren kontra. Hirugarrenean Guy Mounho eta Jean-Francois Iribarrenek partida ederra jokatuta Bixente Urdanpilleta eta Thomas Daubaseri 40-31 irabazi zieten. Bigarren seriean Mickael Massonde eta Panpi Dibarrek 40-25 irabazi zuten Guy Housse eta

Bruno Ezcurren kontra. Final nagusia, Iñaki Jauregi eta Denis Endarra saratarrek irabazi zuten 40-36 Felipe Otegi eta Sascoren kontra.

Errugbia

Erdi finaleko lehen partidari Basurdeek 15-14 galdu zuten nahiz eta bigarren zati bikaina burutu. Ea itzulerako partidari finalerako txartela lortzen duten.

MONTXO OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

ТАВAKO-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА • УРДАЗУБИ
Egunero irakia 10:30etik 02:30era

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
T: 948 631 106 w: www.zalain.com

HERRIKO ETXEO
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Moztan s/ta Warrapue
SARA

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 inuñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

ARMUA JATETXEA

T: 948 299 131
Ezperantzu s/ta 3.ºa
LEZAR

SENPERE

KULTURA → EUSKARA

Korrikak bi aldiz bisitatu du gure herria

Euskaltzaleak Herri Urratsen prestakekin daude

Franck DOLOSOR

17. Korrika Donostian bururatu zen apirilaren 17an eta egun batzuk lehenago gauza harrigarria gertatu zen bi aldiz zeharkatu zuelako Senpere. Apirilaren 11n, saratarrek eman zaukuten lekukoa, gero Arbonaraino eramana zena. Biharamunean, arratsaldean beti ere, beraz, ordutegi zinez ezin hobean, eta iduzkia lagun, uzta-rriztarrek ekarri zuten AEKren makiltxoak eta gure herritarrek Azkaineraino eramana zuten eskuz esku.

Aurten ere senpentera andanak parte hartu du lasterkaldi hunkigarri huntan. Bihotza eta gorpuzta beroturik Korrikari esker, orain argi da euskalakariek lan handia dutela oraino egite-

ko gure mintzairak bere toki osoa ukan dezan egun guzietako bizian. Maitatu, ikasi, ari, euskalakari... pausoz pauso... kantuak dioen bezala.

HERRI URRATS ATE JOKA

Besta bat bururatu eta, bertze besta bati pentsatzen ari dira orain euskaltzaleak: aintziraren inguruan maiztzeo bigarren igandean ospatuko den Herri Urrats, Iparraldeko ikastolen aldeko jaia, hain xuxen.

Aurtengo irabaziekin Kanboko Xalbador kolegioa haundituko eta berrituko dute osoki. Antolatzaileek espero dute aitzineko urteetan baino jende gehiago bil-tzea, bereziki hegoaldeko euskaltzaleak azken urteetan gero eta gutiago agertzen direlako aintziran.

Bertzalde, hegoaldeko hautetsien presentzia segurtatua bada, Seaskako arduradunek nahi lukete Georges Labazée

Herri Urrats besta maiatzaren 8an



Laku bat munduan lelopean, Herri Urrats besta maiatzaren 8an egingen da aintziran, aurten 28. aldiz. Beti bezala, egitarau osatua prestatu du Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak. Euskarazko irakaskuntzaren aldeko egunean, euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeaz gain, hamarnaka animazio ospatuko dira.

NAFARROA

10:00: Bertsolariak
11:00: Begiz begi
12:00: UK Bill
13:30: Patxi ta konpainia
15:00: Izate
16:30: Berri Txarrak
18:00: Emon

LAPURDI

10:00: Kattalin Indaburu
12:00: Bertsolariak
13:00: Roni
14:30: Watson
16:00: Xarneg
17:30: Kalakan

ARABA

10:00: Errenteria musika-
la
11:00: Cercle Armor Argo-
at
12:30: Mutxikoak
13:00: Iparraldeko gaiter-
roak
13:30: Herri Urrats Kantuz
14:30: Luar Na Lubre
16:30: Tapia

GIPUZKOA

10:00 Cercle Armor Argo-
at

10:30: Hala doaz
11:00: Goazen
12:00: Kukai
13:00: Abolicao Capoeira
14:00: Korrontzi & Oinkari
16:00 Gorpitz
16:30 Made in hip hop

HAURREN TXOKOA

10:00: Potxin eta Patxin
pailazoak
11:00: Oinak arin
11:30: Bertsolariak
12:30: Txupinazoa eta
entziera Porrotzekin
13:30: Liliri gutuna mimo
ikusgarria
14:30: Gipuzkoako kirol
adaptatuaren federazio-
aren eskutik jolasak
16:00: familiendako jola-
sak

Pirineo Atlantikoetako departamenduko kontseilu nagusiko president sozialista berria ere Senperen izatea. Egia da Kotte Ezenarro, orain president orde dena, edo

Frantxua Maitia Akitaniako lurralde kontseiluko president orde urte guziz Herri Urratsen izaten direla baina Seaskaren ustez, onena litzateke buruzagi nagusia be-

ra bertan izatea horko lankidetzan, lan giroa eta hitzaldiak entzun ditzan. Labazée biarnesa euskal bestarik haundienan izanen ote den... geroak erranen.

LARRALDEK eta LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolleria auzoa • LEKAROZ | 948 452121 • 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

SOULE
hilea arteak
Tél: 049 433 444
Fax: 049 433 444
www.soule.com

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

ANTXITONEA
Txikiena

24 hiritia bitartean - Auzokalekua
Auzo giroa eta puzetas - Hain musikala eta TI
Gela berria sialde eta bost zerbitzuanekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

EZKONTZAK

Juan Jose Irigoien Iribarren eta **Amaia Ordoki Etxeberria**, Urdazubikoa eta Lesakakoa, martxoaren 19an Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ixone Maritorea Cuesta, Anizkoa, apirilaren 8an.

Markel Sanchez Sainz, Lesakakoa, apirilaren 7an.

Arhane Silveira Arrieta, Lesakakoa, apirilaren 13an.

Joanes Salaberria, Sarakoa, apirilaren 6an.

Aya Beaux Riordan, Sarakoa, martxoaren 30ean.

Beñat Telletxea Gogorza, Doneztebekoa, apirilaren 17an.

Andrea Subizar Quispe, Legasakoa, apirilaren 14an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jean Martin Elizagoien, Sarakoa, martxoaren 31n, 61 urte.

Jose Jabier Danboriena Etxarte, Etxalarkoa, apirilaren 4an, 61 urte.

Benita Martiarena Etxeberria, Lesakakoa, apirilaren 6an, 91 urte.

Juana Josefa Indakotxea Telletxea, Doneztebekoa, apirilaren 4an, 95 urte.

Adriano Ruiz Romero, Berakoa, apirilaren 6an, 42 urte.

Lucio Etxenike Adansa, Zugarramurdikoa, apirilaren 7an, 82 urte.

Saturnino Pikabea Etxebeste, Lesakakoa, apirilaren 7an, 83 urte.

Basilio Maritxalar Iturria, Igantzikoa, apirilaren 13an, 77 urte.

Jose Mari Lizardi Sanzberro, Elizondokoa, apirilaren 15ean, 74 urte.



Jose Manuel ARIZKORRETA Navarro

*Udaberria sortu berritan
sahatsa malkotan dago
gure bihotza lore minetan
are ta penatuago;
lagunak, senideak ta Axun
zurekin hain gaude harro
gure loreak izen bat du
ta zurea da: Navarro.*

ALDAPATXOKO FAMILIA



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN
948581959 | 948 637404

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)
LESACA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)
BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)
DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TXIRRINDULARITZA → AFIZIONATUAK

Caja Rural taldeko Yelko Gomez nagusitu da Bidasoaldeko Sarian

105 kilometroko ibilbide gogorra osatu dute txirrindulariek

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Caja Rural taldeko Yelko Gomez txirrindulari panamarrak irabazi zuen apirilaren 10ean igantzian abiatu eta Pie-

dadeko gainean bukatu zen Bidasoaldeko I. Saria. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria zen 23 urtez beheitiko txirrindulari afizionatueizuzendutako proba.

Gomezek 2 ordu, 42 minutu eta 32 segundu behar izan zituen 105 kilometroko ibilbide gogorra osatzeko. Piedadeko gaina hiru aldiz eta



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Txirrindulariak Nabazko gaina igotzen Lesakan. Ezkerrean, Caja Rural taldean ari den Beñat Txoperena igantziarra.

Lesakan, Nabazko gaina igo behar izan bazuten ere, helmugara elkarrekin ailegatu zen txirrindulari multzoa. Ibai Salas (Seguros Bilbao) bigarren izan zen, irabazlearengatik 2 segundora, eta Jon Larrinaga (Naturgas) hirugarren izan zen, denbora berean.

SAILKAPENA

1. Yelko Gómez	(Caja Rural)	02:42:32
2. Ibai Salas	(S. Bilbao)	02:42:34
3. Jon Larrinaga	(Naturgas Energia)	d.b.
4. Eddy Valdespino	(Caja Rural)	d.b.
5. Aitor Gonzalez	(Debabarrena)	d.b.
6. Alejandro Sivori	(Azysa-Conor)	d.b.
7. Igor Merino	(Naturgas)	d.b.
8. Carlos Jiménez	(Caja Rural)	02:42:40
9. Luis Rodrigo Blanco	(Koplad-Uni2)	d.b.
10. Mikel Elorza	(Bidelan-Kirolgi)	d.b.

PILOTA → XXXII. LAXOA TXAPELKETA ABIATZEAR

380 korrikalarik parte hartu dute Leitzako XXXIII. Herri Krosean

Kategoria nagusian marokoarrak gailendu dira

mutiko atera ziren ibilbidea osatzera.

HELDUETAN MAROKOARRAK

Helduen kategorian, gizonetzkoen artean, marokoar jatorriko hiru korrikalarik osatu zuten podiuma. Cherkaoui Mouhsin izan zen helmugara iritsi zen lehen gizonetzkoa (00:31:04), Abdelfettah Louajari bigarrena (00:31:13), eta Abdelhadi Habassa hirugarrena (00:31:45). Gizonetzkoetan lehenenkin iritsi zen leitzarra Iban



ARGAZKIA: HITZA

Gaztetxoak gurasoen laguntzarekin ibili ziren lasterka.

Urtiaga Munarriz izan zen (00:37:35). Leitzako eta eskualdeko gehiago ere atera ziren lasterka, eta lehen hamar postuetan Alberto Barberena lekaroztarra sailkatu zen, 6. postuan (00:33:40). Gehiago ere atera ziren: leitzarrak, leizarrak, aresoar eta etxa-

lartar bana...

Emakumezkoetan, aipatzekoa da aurtan parte hartzea beste urteetan baino handiagoa izan zela. 44 lagun atera ziren eta horietatik 18 leitzarrak, hiru beratarak eta Doneztebe eta Ezkurrako bana. Calahorrako Salima Charki izan zen irabazlea

(00:18:33). Atzetik ailegatu ziren Rosi Talavera Garcia hendaiarra (00:19:14), eta Lekunberriko Olatz Gonzalez Glaria (00:21:14), hurrenez hurren. Garbiñe Hernandezena Erbitan izan zen helmugaratu zen lehen leitzarra (00:22:25). Bosgarren izan zen.

TTIPI-TTAPA | LEITZA

380 korrikalari inguruk parte hartu zuten apirilaren 9an Aurrera elkarteak antolatutako Leitzako XXXIII. Herri Krosean, bero itogarriari aurre eginez. Lasterka hasten lehenak gaztetxoak izan ziren. Gurasoen laguntzarekin, guztira 180 neska-

MENDIA → BERA

Didier Zago eta Oihana Kortazar garaile Mendi Maratoi Erdian

Hirugarren aldiz irabazi du Zagok eta bigarren garaipena da Kortazarrentzat lasterketa honetan

TTIPI-TTAPA | BERA

Apirilaren 17an jokatu zen Manttale Mendi lasterketa taldeak antolatutako Berako VII. Mendi Maratoi Erdia. Didier Zagok eta Oihana Kortazarrek irabazi zuten eta biek beraien kategorietako marka berriak ezarri zituzten. Zagok 01:38:11eko denbora egin zuen eta Oier Ariznabarretak eta Walter Becerrak osatu zuten podiuma. Laugarren postua Oargi Mendi Taldean ari den Fernando Etxegarai beratarrentzat izan zen, Manttaleko Unai Santamaria hernaniarra hamabosgarren izan zen eta Leitzgain taldeko Iñigo Lasaga etxalartarra hogei bigarren.

Emakumeen kategorian Kortazarren gibe-

DATUA

01:38:11

DENBORA

horixe behar izan zuen Didier Zagok apirilaren 17an Berako Mendi Maratoi erdia bukatzeko. Marka berria ezarri du.



ARGAZIAK: MANTTALE ETA TTIPI-TTAPA

Nafarroako Klub Arteko Txapelketan bigarren izan da Manttale. Beheitiko argazkietan Fernando Etxegarai batetik, eta Iñigo Lasaga bertetik.

tik sartu ziren helmugan Nuria Domingez eta Izaskun Zubizarreta. Kortazar elgetarrak bere bigarren garaipena du hau Beran jokatzeko denbora honetan, 02:04:35eko denborarekin. 2009an irabazi zuen eta iaz ez zuen parte hartzerik izan, haurdun zegoelako.

Gizonezkoen mailako irabazleak 2010ean egindako marka (01:40:02) hobetu zuen. Horrela, 300 euro gehiago ere eskuratu zituen. Ibardingo saria Ariznabarretarekin banatu zuen. Hirugarren aldiz irabazi du Zagok

Berako Mendi Maratoi Erdia.

21 kilometro eta 2.700 metroko desnibela zuten ibilbidea egin behar izan zuten, Larun puntu altuena zutelarik. 513 korrikalarik parte hartu zuten Mendi Maratoi Erdian, eta haue-
tatik 481 iritsi ziren helmugara.

TALDEKAKOAN MANTTALE BIGARRIN

Nafarroako klub arteko txapelketa ere erabaki zen Berako lasterketan. Iaz egin zen lehenbiziko aldiz lasterketa hau eta Manttalekoak txapeldun suerta-

tu ziren Lakuntzan. Baina etxean ezin izan zuten garaipena errepikatu eta taldeka Aralar Mendi Taldea izan zen nagusi, Manttale eta Txurriegiren aurretik. Aipatzekoa da Martikoren 25. urteurrena dela eta sari berezia eskaini zuela enpresa honek. Sari hori Josean Beledo Lomarentzat izan zen

Lasterketa ikustera hurbildu zirenek eguraldia lagun izan zuten eta ez zuten proba gozatu ahal izateko inolako arazorik izan.

Sailkapen osoa www.manttale.com helbidean ikus daiteke.



PERTSONAIA

Aimar OLAIZOLA

Joko bikaina eginez, binakako bigarren txapela eskuratu du

Erakustaldi ederra emanez, Aimar Olaizolak eta Aritz Beginok Binakako Txapelketako finala irabazi dute, Xala eta Berozi 22-14 irabazita. Bilboko Bizkaia frontoi berria lepo beterik zegoela, Asegarceko bikoteak joko hobearen erakutsi zuten apirilaren 17an. Olaizola izan zen laukoteko pilotaririk onena, eta gutxik bezalako jokoa duela erakutsi zuen. Goizuetako aurrelariak markatu zuen partidako erritmoa eta 13 tanto airez bukatu zituen. Mikel Beroizek oso ongi ordezkatu zuen Abel Barriola. Hala ere, irabazleek lan gogorra egin behar izan zuten 22ra iristeko. Hamalaunako berdinketaren ondoren, Olaizolak erakustaldia eman zuen, zuzenean 22ra iritsiz. Aimar Olaizolak bere zortzigarren txapela eskuratu du azken honenkin, eta binakako bigarrena izan da. Txapela bikoteari, jaioko den euren haurrari eta erreperazioan lagundu dioten guztiei eskaini die.

apirilak 28-maiatzak 11

Informazioa bidaltzeko: info@titi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



BERA | 2011.04.28

Arkupeak erretiratu elkartearen Gimnasia Eguna

Urteroko ohiturari eutsiz, urtean zehar beraien herrietan egiten dituzten gimnasia ariketak jendaurrean egiten dituzte Arkupeak elkarte kirolariak.

Feriak



ELIZONDO | 2011.04.29

Udaberriko Feria ospatuko da ortziral honetan

Azienda eta bertako produktuen feriaz gain ahari lehiaketa ere eginen da. Txistulari, dantzari eta txalapartariak ere girotuko dute Udaberriko Feria Eguna.

Bestak



GOIZUETA | 2011.05.06-07

Tzino auzoko festak ekitaldiz gainezka

Ostiralean bertso musikatuak eta mus txapelketa eta larunbatean itxaferoa, buruhaundiak eta trikitilariak, dantza, asto lasterketa, bazkaria, berbena, kontzertuak...

BERA

Bidasoko XXIV Bertso-paper lehiaketa

Maiatzaren 6ra arte aurkezten ahal dira Bidasoko XXIV Bertso-paper lehiaketarako lanak. Adinaren arabera, hiru mailatan banatu da lehiaketa.

DONEZTEBE

IV. Pintxo lehiaketa

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean eginen da Doneztebeko ostatueta.

Antzerkiak

BERA

Antzezlan Gaztetxean

Apirilaren 29an Pedro y el capitán antzezlan eskainiko du Zaragoza Teatro Pezkaio taldeak 22:00etan Kaxernan. Mario Benedettik idatzirik antzezlan bakarraren egokitzapen librea.

Ospakizunak

LESAKA

Ama eta Amatxien Eguneko bazkaria

Maiatzaren 1ean Ama eta Amatxien Eguneko bazkaria antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak. Aitzinetik, Ibilaldi Arautua eginen da.

SENERE

Herri Urrats

Maiatzaren 8an ospatuko da Seaskaren aldeko besta handia.

DONEZTEBE

Udaberriko Feria

Maiatzaren 6an Udaberriko Feria ospatuko da. Xehetasunak 17. orrian.

ELIZONDO

Udaberriko Feria

Apirilaren 29an Udaberriko Feria ospatuko

Kontzertuak

ELIZONDO

Jalisko Band Lurren

Apirilaren 30ean Jalisko Band taldeak kontzertua eskainiko du Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

SARA

Herri Urrats bezperako gaupasa

Maiatzaren 7an gaupasa antolatu du Etxola Gaztetxeak: Borrokan (Bera), MOPA (okzitaniar Tolosa), Williams Drummond eta bukatzeko DJ Panda Valium vs DJ Mollo ariko dira.

Erakusketak

ELIZONDO

Nafarroako kazetaritzak 100 urte

Apirilaren 3tik maiatzaren 2ra Nafarroako kazetarien mendeurrena (1911-2011) erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, Nafarroako kazetariak antolatua.

Argazki erakusketa

Maiatzaren 4tik 30era *Compartir Na-*

varra GKE Adreiluz adreilu, euroz euro erakusketa Arizkunenea Kultur Etxeko lehendabiziko solairuan.

Ehizari eta bordatu erakusketa

Maiatzaren 9tik 14ra ehizari eta bordatu lanen erakusketa antolatu du Baztango Ehizari Taldeak.

Ikastaroak

AMAIUR

Barazkigintza ekologikoa

SENERE

Herri Urrats aintzira inguruan

Herri Urrats bestaren 28. edizioa maiatzaren 8an ospatuko da *Laku bat munduan* lelopean eta aurtengo irabaziekin Kanboko Xalbador ikastegia haundituko dute gero eta ikasle gehiago biltzen direlako bertan. Urtero bezala, hainbat ekitaldi antolatuko dira eta bezperan gaupasa izanen da Saran.

Apirilak 28 eta maiatzak 3, 5 eta 10. Ikastaroa Otsondo gelan eskainiko da 17:00etatik 20:00etara.

Lehiaketak

ELIZONDO

Musika bakarlarien lehiaketa

Apirilaren 30ean 13-16 urte bitarteko musikari bakarlariei zuzendutako lehiaketa eginen da Arizkunenea, goiz eta arratsalde. Xehetasunak 540. alean.

BERA

Sanestebanetako programaren azala

Apirilaren 29ra arte aurkezten ahal dira San Esteban bestetako programaren azal lehiaketarako lanak.

LESAKA

Sanferminetako kartel eta programaren azala

Apirilaren 29ra arte aurkezten ahal dira sanferminetako kartelaren eta programaren azal eta kontrazal lehiaketetarako lanak.

PROPOSAMENA



da. Xehetasunak 540. alean.

BERA

Arkupeak elkartaren Gimnasia Besta

Apirilaren 28an Toki Ona kiroldegian egingen dute urteroko Gimnasia Besta, 11:00etatik 13:00etara. Gero, bazkaria.

SUNBILLA

Herriko artzain amerikanoen eguna

Maiatzaren 1ean Ameriketako artzain ibilutako sunbildarrek urteroko besta egingen dute. Xehetasunak 18. orrian.

LEITZA

Natur Bideen Eguna

Apirilaren 30ean ospatuko da. Xehetasunak 25. orrian.

Herriko jubilatuen Eguna

Maiatzaren 1ean herriko jubilatuen eguna ospatuko da. Xehetasunak 26. orrian.

Bestak

GOIZUETA

Txino auzoko festak

Maiatzaren 6 eta 7an ospatuko dira Txino auzoko bestak. Xehetasunak 24. orrian.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak Senperera

Maiatzaren 8an Herri Urrats ospatzen dela eta Senperera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak. Amaiur-Luroko ateka-Kaperera-Ainhoa-Senpere (07:00etan).

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Zeluloidezko begiradak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Elkar, 2011

Dena esan dezake zinemak, osotasun handiena du artistikoki eta komunikazio modu onena da, erritmoarekin, hitzekin, argi eta itzalekin... leku batetik bestera eramaten zaituelako, berak nahi duen bidea jarraituz. Bertze arte diziplinek ez duten abantaila handi bat dauka gainera: leku ilunean ikusten dira pelikulak eta, aretoa beteta egon arren, harreman intimoa, zuzen-zuzena, sortzen da ikuslearen eta pantailaren artean». Aipu horrekin hasten da liburua, irudien bidez istorio zirrargarriak sortzeko gai direnei hitza emanez. Bederatzi kapitulu, hamahiru zuzendari: Fernando Larruquert, Nestor Basterretxea, Antxon Ezeiza, Helena Taberna, Imanol Uribe, Juanba Berasategi, Julio Medem, Montxo Armendariz, Koldo Almandoz, Asier Altuna, Telmo Esnal, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.

Musika



Azulejo frío

TXARRENA

Maldito Records 2011

Txarrena disko berriarekin dator eta inoiz baino indartsuago gainera. 19 urte pasa dira azken diskoa kaleratu zuenetik. 80ko hamarkada bukaeran hasi zen *El Drogas* (Barricada) talde honekin eta 1992an argitaratu zuten diskoak 43.000 ale baino gehiago saldu zituzten. Orain urte bete ekin zion *El Drogasek* berriz ere talde berri batean bihurtuz. Brigi Duque (Komako frontmana), Eugenio Aristu (Flako) eta Txus Marabi (La lengua del Trapo) gitarra eta baxuan elkaturik. *Azulejo frío* taldearen bigarren albuna da Maldito Records-ekin kaleratua. Rock & rollez beteriko 15 kantu, energia eta freskura ikaragarriekin. Gaua gai nagusizat harturik eta *Drogasek* duen idazteko modu bereziarekin. *Azulejo frío*, *Ella no para* edo *savaje mirar* izenen dira gaztelaraz abestutako rock kanta berriak.

Internet



ANTTONALBERDI.COM

Antton Alberdik gazteak urteak daramatza argazkilaritza munduan. Biologia ikasketak argazkilaritzarekiko afizioarekin lotzea lortu du web-orrialde honen bidez. Animaliak, basoak, loreak, landareak, paisaiak eta ingurugiroan biltzen diren hainbat bitxikeria ikus ditzakegu bertan. Fotonatura web-orrialdean ere Elgoibarko gaztearen hainbat argazki ikus ditzakegu. www.anttonalberdi.net berak diseinatutako orrialdea da. Teknologia berriekin duen gaitasuna ere ikus daiteke bertan. Iruzkina idazteko eta harpidetzeko aukera ematen du. Albisteak ere osatzen ditu bere argazkien inguruan, baita argazkiak dituen ezaugarriak eta photoshopean egindako ikutuak zein diren ere.

Nire aukera



Felix MENA
Elizondoko argazkilaria

«Astia dudanean familiarekin egotea da gehien gustatzen zaidana»

Argazkidenda larunkia izaten dutela eta sarritan ezkontzetako, baitaioetako edo jaunartzetako irudiak hartu behar izaten dituela kontuan hartuz, ez du asti libre sobera izaten. «Lehen, gaztea nintzenean, neguan eskiatzera joateko ohitura izaten nuen», dio. Orain berriz, «jokatu ez, baina futbol-telibatatik ikustea aunitz gustatzen zait, eta gehienbat familiarekin egotea, semearekin jolasean», aipatu digu Menak. Izan ere, 18 hilabeteko Xabat semea-ri eskaintzen dio «ia ia denbora osoa, aski gustora!». Beraz, asteburua libre suertatzen zaionean hori izaten da bere lehentasuna, «familiarrekin egotea, normalean Elizondon gelditzen gara, baina Iruñean edo Donostian ere ematen ditugu bueltaxkak». Oporrak ere arrot gutti izaten ditu normalki eta «hondartza aldera» joatea gustatzen zaio. Ezkonbidaian Argentinan «arras gustora» egon zen eta Alpeak ikustera ailegatzea gustatuko litzaioke.

ETXEBIZITZAK
salgai

EZKURRA. Portonea baserria salgai. Lur eta so-roekin. ☎948615125/646548610.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Pisu salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. ☎630160353.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESKA. 110 m²ko etxe erreformatu berria salgai. Bista onak. Bi aldetara irteerarekin. Oso prezio ona. Aukera paregabea. ☎667 605233/629682121.

ETXALAR. Lizaietako paraje zaharberritzeko den borda salgai. ☎661 121540.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

IRURITA. Etxea errentan emateko. ☎659 764375.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrigan pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎676707620.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎626774582.

ELIZONDO. Pisu errentan emateko. ☎676707620.

LESKA. Pisu errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gela guztiek kanpora ematen dute, argitsua. Mobleztatua. ☎686378154.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

LEITZA. Bikote batek pisua edo baserria errentan hartuko luke. ☎661829359.

BERA. Bikote batek pi-

sua edo estudioa errentan hartu nahi du, Bera-ko zonaldean. ☎688680982.

ZERBITZUAK
denetarik**GARAJEAK/LOKALAK**
salgai

LESKA. Eitzetako plaza garajeko marra salgai. ☎686 506496.

BERA. 86 m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Ekipatua. Eskaparatea. ☎948 630552.

LURRAK
salgai

BERA. Alkaiagan 964 m²ko lur eremu urbanizatua salgai. ☎948 630546.

LANA
eskaintzak

LESKA. Ileapaindegi batean pertsona bat behar da. ☎667 536132.

DANTXARINEA. Azulejo-salmentaren denda batean pertsona bat behar da. Frantsesa eta informatika dakizkiena. Hilabeteetan hiru asteburuz lan egin beharko du. Motibatua izatea eskertuko da. ☎948599017.

LESKA. Ekaitza hosta-lean, sukaldean, barran edo garbiketa lanetan aritzeko esperientzia duen emakumea behar

LANA
eskariak

LEITZA. Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke. ☎667518404.

LEITZA. Neska batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎695716894.

MOTORRA
salerosketak

Seat Leon 2.0 TDI Sport-UP salgai, 140 zaldikoa eta 2006koa. 85.000 kilometro. Beltza. Eguzki-sabaia eta kristal beltzak. Egoera onean. ☎636030990.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(apirilaren 8tik 15era bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (0,00)

Zerri gizena
1,265 € kiloa. (=)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (=)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,56 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,18 (=)

1.koa 3,90 (=)

2.koa 3,76 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,50/6,20

8-10 kilokoak: 4,60/4,90


MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ETXALAR. Yamaha York scooter motorra salgai. Modelo zaharra. ITVa 2012ko ekainera arte pasatua. 350 euro. ☎618 774322.

ANIMALIAK
salgai

GARTZAIN. Azpiko behor tordoa salgai. Hezia. ☎696 765465.



Border Collie arrazako lau zakurkume salgai. ☎667 505730.

DENETARIK
salerosketak

Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Yamaha bajua eta Ampeg AP-15 amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633195.



90 zentimetroko **habiohea** salgai. Egurrezkoa, txuri kolorekoa eta koltxoiarekin. ☎948451787.

DENETARIK
galdu/aurkituak

Sabueso arrazako ehi-zako zakurra galdu da apirilaren 5ean Legasa, NARBATE edo GAZTELU aldean. 4 hilabete ditu eta ez du izenarekin lepokorik. ☎660 702060.



urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



JULEN JUANIKOTENA BORDA elizondarrak apirilaren 20an 3 urte bete ditu. Zorionak osaba-izeben eta berexiki amatxi, Laura, Oier eta Ikerren partetik. Muxu haundiak.



ASIER GELBENZU MAJESTERRENA lekaroztarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak pilotari eta muxu haundi bat familiaren partetik. Muxu haundiak.



Leitzako **NEREAK** apirilaren 29an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren eta berexiki seme-alaba Unax eta Jueren partetik. Muxu haundi bat.



Urdazubiko **ENEKO ARRUFERIA SOUBELETEK** 5 urte bete ditu apirilaren 16an. Zorionak eta mila muxu morroxko, familiaren partetik.



Zorionak **SUHAR URSUA QUESADA!** Apirilaren 15a eta urtebete egin duzu eta hori ospatu beharra dago. Badakizu? Guraso, izeba-osabek eta aitatxi amatxiok pila-pila patata tortilla maite zaitugu! Muxu anitz-anitz Pausuko gure **SUHARR!**



Zorionak aita-alabei! Narbarteko **MIKEL** eta **OLAIA JUANABERRIAK** urteak bete dituzte apirilean. Egun ona pasa eta muxu haundi bat amatxi, aitatxi, izeba, osaba eta berexiki amatxo Piliaren partetik.



Zorionak zuen urtebetetzean! **RAFAELA** eta **ANABEL, ANABEL** eta **RAFAELA**. 50 urte elkarrekin. Hori bai dela opari ederra!



Zorionak **AIMAR SARRATEARI** 9 urte bete dituelako apirilaren 27an. 9 musu haundi familia guztiaren eta berexiki Oihan eta Naxaren partetik.



Doneztebeko **JOANES JUANOTENA IRIBARREN** gure etxeko tikiak jada 2 urte beteko ditu maiatzaren 1ean. Zorionak atta eta amaren partetik eta muxu haundi bat.



Sunbillako osaba **JOKIN PETRIRENAK** eta amatxi **MARIKRUZ GOROSTERRAZUK** urteak beteko dituzte apirilaren 26an eta 30ean. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, baina berexiki zuekin argazkian ageri diren bi sorgintxo horien partetik. Ongi pasa zuen urtebetetze eguna. Muxuak.



Donamariako **NEREA** eta **OLAIA SARRATEA AMIGORENAK** 3 urte bete dituzte apirilaren 24an. Muxu haundi bat denen partetik, eta berexiki Iratiren partetik.



OMAR IRAZOKI EZKURRA sunbildarrak 2 urte bete ditu apirilaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta zure arreba Ahielenen partetik.



NAITZE ORMAZABAL MIKELARENA lazkaotarrak urtea beteko du maiatzaren 3an. Muxu haundi bat Berako amatxi, ataxi eta izebaren partetik. Zorionak gure bitxito! Aupa potxoli!



Senpereko **JOHANES ARIZMENDIK** urteak beteko ditu maiatzaren 15ean. Baztango familiaren partetik aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat.



Lesakako **NAULOK** 60 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Zorionak sesenton eta probexu jubilaioa!



Irungo **AIMAR ETXEBERRIA ZUBIALDEK** 4 urte beteko ditu apirilaren 27an. Zorionak Xune, Mirari, Unai, Jone eta Landerren partetik. Prestatu berendu goxoa eta izan txintxoak!



Elizondoko **KAIET** eta **HAIZEA ALEMANEK** 2 urte bete dituzte apirilaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



Iruritako **JULEN URREAGA ESKUDEROK** maiatzaren 2an 7 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, eta berexiki Ane eta Mikelen partetik. Afari eta bizkotxo goxoa prestatu. Muxu aunitz!

Egin zaituzte **ttipi-ttapa**ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urtazubi eta Malerka 31€
- Amerika eta Australia 120€
- Ipur Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

(0034) 948 63 54 58 - www.ttipi.net

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko **DOKUMENTU-POLTSA** bat izanen duzu opari

geure bezeroek aukeratuak diren proiektua **can** proiektu zenbakia **15996**

ttipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren agiria Nafarroako Kutsaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA abenduaren 30a baino lehen.



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

540. ALEKO IRABAZLEAK

- * OLATZ ZUGASTIren CDa
Karmela IRURETA NEMOURS | ELIZONDO
- * DONOSTIAKO AQUARIUMera 2 SARRERA
Patxi IRIGO ARIZTEGI | BERA
- * ONINART KAMISETA
Juan Ignacio LOINAZ YARZA | KANTZI
- * PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS KAMISETA
Lourdes SANZ GANBOA | BERA
- * TTIPI SASKIA
Ines ZAYAS ITURRIA | ELIZONDO

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

4 LIBURUA
Erein argitaletxea
www.erein.com

AITONA-AMONEKIN KANTARI CDa
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

KAMISETA BAT + CDa
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.kabiporreta.com

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

4 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

PUNPALAPLAN CD + DVD
Urbintxa eskola
www.urbinbxa.org

DESKONTUAK

KATEA-BIKE
%5 konparteketa

MIHUR
%10 konparteko artikuluetan

Kalea
%10, 3000a gorako gutuan

%5 zatur eta kuturraren gutuzian

POTTOKI
%5 konparteko artikuluak libretan

JALISKOBAND

APIRILAK
30
LARUNBATA

01:00 9€

LURDJOTAK

MAIATZAK
7
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

VENDETTA

MAIATZAK
14
LARUNBATA

00:30 8€ Aurretik 10€ Bertan

TXARRRENA

MAIATZAK
21
LARUNBATA

+CALAÑA

23:30 16€ Aurretik 20€ Bertan

REMEMBER BESTA

MAIATZAK
28
LARUNBATA

01:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ESKATU
ZURE
KAMISETA

2011/05/28
Bukatu arte



garagardategia



MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...

OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA
ERRESERBAK: TEL. 948581883



WWW.LURELIZONDO.COM